

uk

139. zenbakia / 2008 ekainak 11



BERDINEAN euskaraz

Euskaraz egiten duten ...


- Ume jagoleak
- Aisialdiko begiraleak
- Kirol begiraleak
- Klase partikularren emaileak
- Aurkezleak



... behar ditugu

Izena emateko

Kultur Leioa
Euskara Zerbitzua
Jose Ramon Aketxe
Plaza, 11



Leioako familiak eta
elkarteok!

Behar badituzue
badauzkagu
zerrendatuta:

Informazio gehiago:
94 607 25 76



- Ume jagole...
- Aisialdiko begirale...
- Kirol begirale...
- Klase partikularretarako pertsona...
- Aurkezle...

...euskaldunak



Zerrendak zuen esku daude Kultur Leioan,
Euskara Zerbitzuan



Non zer

4. GU GEU.
5. IRUDIA. Leioako umore azoka.
7. LEHEN ETA ORAIN. Neguri.
8. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
11. ERRETRATUA. Ricardo Alonso *Ritxi*.
12. HERRIZ HERRI. Getxo 12. Leioa 16. Erandio 18. Sopelana 20. Berango 22. Gainerako herriak 23.
25. AGENDA.

SAKONEAN

26. ALBUMA. Getxoko eskulangintza azoka.
28. ARGAZKIA. Periko astoa.
30. BERBETAN. Patxi Olaso, Zuberua Iturburu.
34. FOTOGRAFIA. Uriolak eskualdean.

KULTURA ETA AISIA

42. ZINEMA. *El cementerio de la memoria* dokumentala.
43. MUSIKA. Kobetasonik jaialdia. Diskoen erreseinak.
44. LIBURUAK. Axularren Gvero. Liburuaren erreseinak.
45. KIROLAK. Arraun eta bela kiroldegi berriak Getxon.
46. ELKARRIZKETA. Mikel Pikaza.

AMAITZEKO

49. NON JAN. Berangoko Olagorta.
50. HOROSKOPOA.
51. KOMIKIA. Dogan Gozel.
52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
53. FLASH BACK. Oberentsu txokoa, Bittor Egurrola.
54. AITORMENAK. Alain Goikoetxea.

Azaleko argazkia: Egoitz Sierra (Berango)



30 Patxi Olaso



11 Ricardo Alonso *Ritxi*

Berbetan

Orain dela gutxi hartu du erretiroa bizitza osoa bere enpresari -Cianoplan- eskaini dion otxandiotar behargin honek.



34 Uriolak eskualdean



14 Maitane Galarraga



54 Alain Goikoetxea



23 Matxalen de Pedro

Bilatu zure Renault "Km.0"

Bilbo Berri Getxo-ren web berrian

www.seminuevosengetxo.com

BILBO BERRI
Bizkerre, s/n - ALGORTA. Tel. 94 430 68 81

UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta Elkarte

HELBIBIDEA: Amezi 6, 4. solairua, 5. bulegoa 48911 GETXO
e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kutxa 171
Tel: 94 491 13 37

ZUZENDARIA: Jokin Aspuru

ERREDAKZIOA: Irantzu Sagaminaga, Ander P. Goikoetxea,
Maitane Nerekan

FOTOGRAFIA: Asier Mentraka

TESTUEN ORRAZKETA: Inge Beitia

KOLABORATZAILEAK: Bittor Egurrola,
Oskar Fernández, Unai Amezaga, Itsaso Arana,
Gaizka Escudero, Xabier Paya, Berbets Erandion Euskaraz eta Bizarra
Lepoan Euskara Elkarte.

MARRAZKILARIAK: Dogan Gozel

PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Zuriñe Martínez (94 491 13 37)

KANPO HARREMANAK: Gorka Orueta

FILMAZIOA: Argia / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF

LEGE GORDAILUA: BI-1878-00

ISSN: 1576-6799

© Boluntzarreta

Aldizkari hau Euskal Herriko
herri aldizkari eta euskara elkarten
Topaguneko partaide da

ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK



gugeu

Egunak argituko du

Ohetik altxatu ere egin behar ez genukeen egunak badira...

Batzuetan Eguzki amandrea ere okerreko aldetik irten dela ematen du...
Aurreikusitako guztietatik bat bera ere gauzatzen ez den aldiak bizi izaten ditugu
aldi-aldi...

Espero ez genituen kontuek eta gertaerek gainezka egiten diguten garaiak
ere izaten ditugu, lurperaturik utz gaitzaketen arren, edota urperaturik...

Baina igaro, igarotzen dira edo gainditzen ditugu, den-denak, bizi garen
bitartean bai behintzat; eta hil ostekoetatik ezer ere ez dakigunez, bada
baieztatzen dugu, baietz, egun, urte eta aro txar guzti-guztiak igarotzen direla,
amaitzen direla. Diotenez ahalegintzean datza kontua. Eta ahalegintzera ausartu
behar dugu. Eta esaerari jarraitu, hark dioenez, "ausartak okerrari (begi bakarrari)
begi bat eskatuko lioke".

Bihar ere egunak argituko du!

UK-ko lantaldea

danon ahotan > uholdeak eskualdean



Gogor zigortu zuen eurik gure eskualdea maiztaren akabuko egunean. Biharamunean asko eta asko izan ginen kalteak ikustera atera ginenak. Goiko irudia, Algortako uveetan hartu genuen. Hango taberna gehienak hartu zituen urak, ez ordea jendez gainezka zegoen Danena taberna. Han babestu ginen.

uk

gure posta elektronikoa

uk@aldizkaria.biz

UK Uribe Kostako Aldizkaria

[irudia]



Umore Azoka Leioan / Lau egun, 15 gune eszeniko, 47 konpainia, 160 emanalditik gora, 19 estreinaldi...

Baina Leioako IX. Umore Azoka horrela deskribatzea merezi duena ez ematea litzateke. Arlo ezberdinetako ikuskizunak egon dira ikusgai, barbarako: clown, zirkua, ibiltariak, musikalak, magiazoak, dantzazkoak etab., eta den-denak umoreagaz zipriztinduak.

Baina benetan Umore Azoka zer den jakin gura duenak hurrengo urteko zitara ez luke huts egin behar! ○ / Argazkia: **Kultur Leioa**

Bai Euskarari Ziurtagiria *gu ziur gaude*

“profesionalak
garelako”
“lehiakorragoak izan
nahi dugulako”

“jokaldirik onena
delako”
“elkar ulertzen
dugulako”

ziurtagiriaren elkartea



902 430026

baieuskarari.org

1.500 entitate baino gehiago



[lehen]

GETXO UDAL LEJURUTEGA



[orain]

ASERMENTXAKA

Iraganez doa denbora* beti / NEGURI

* Denbora: gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

uribitakora > zabutik zubira



Zabuak parke Getxon

Testua: **Xa2 Paya** / Argazkia: **Janko Ormaza**

* Doinua: *Itsasoa laino dago*

Txinbo edo
zabu arin,
dindandun zein
ziburu fin.
Aurrerantza
joan dadin
atzerantza
bultza egin.

Haurrak izan
nahi du izar,
ziburuak
gora dakar,
baina nahia
betetzear
lurrerantza
egin behar.

Zabua hel
liteke ba
zubi eder
izatera!
zabukatuz
lehengo bera
Areetatik
Portaltera.



**BASALBO BASERRIA
JATETXEA**

MARTITURRI ESTARTA 18 / 48993 ANDRA MARI - GETXO
TEL./FAX: 94 491 34 91 / BASALBOBASERRIA@YAHOO.COM

bertsolaritza > bertsoplaza.tv, internet bidezko telebista



www.bertsoplaza.tv

Bertsolaritza aspaldiko kontua bada ere, ez da inondik inora zaharkitua gelditu den ohitura. Orain arte plazan zein antzoki handi eta txikietan ikusi ahal izan ditugu bertsolari zahar eta gazteak. Bertsozale Elkarteak 20 urte baino gehiago daramatza bertsoaren bitartez jaso dugun ondareak geroa izan dezan ziurtatzeko lanetan. Bide horretan pauso berri bat eman du, *bertsoplaza.tv* internet bidezko telebista sortuz. Bertan, bertsozale eta profesionalen eskura jarri ditu bertso saioak, elkarrizketak, erreportajeak eta, oro har, bertsoarekin lotura duen edozer. Gainera, nahi duenak parte har dezake bertso gustukoaren alde bozkatzuz, komentarioak eginez edo bertsolaritzaren inguruko bideoak eskegiz. Jada hainbat bideo eskegi dituzte, Ipar Uribeko Bertso Finalarena eta Durangaldeko Bertso Txapelketarena, besteak beste. ○

euskara > sakelako hiztegia deskarga dezakezu sakelakoan



Deskargatzeko bidali *Hiztegia* 5464 zenbakira

Donostiako euskara zerbitzuak martxan jarritako ekimen bati esker, euskara-gaztelania eta gaztelania-euskara hiztegia deskarga daiteke telefono sakelako telefonoetan. Elhuyar hiztegian oinarrituta dago eta 8000 itzulpen ditu. Eleka Ingeniaritza Linguistikoa eta Bluxare enpresek sortu dute. Hiztegia deskargatu ahal izateko mezu bat bidali behar da 5464 telefonora "Hiztegia" hitzarekin. Mezuaren kostua 0,15 eurokoa da. Behin deskargatuta, edozein kontsulta egin ahal izango da dohainik. Diasporako lagunek hiztegia lortzeko aukera izango dute wap sistemaren bitartez. Aplikazioak 334 kb-ko pisua izango du eta ia edozein sakelako telefonotan deskargatu ahal izango da. ○

Informazio gehiago: www.euskaraz.net

saiaszgetaria
HOTELA

Roke Deuna 25
280808
Getaria
Gipuzkoa



..harria ...lehengo garaiak... ...itsasoa

www.saiaszgetaria.com / info@saiaszgetaria.com / t. (+34) 943 140 143

osasuna > biharamuneko pilula dohainik ekainetik aurrera

Medikuaren errezeta beharrezkoa izango da

Ekainetik aurrera Osakidetzak dohainik banatuko du haurdunaldia saihesteko biharamuneko pilula Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako zentroetan. Lehen mailako arreta zentroetan banatuko da eta medikuaren errezeta beharrezkoa izango da. Gaur egun, 18 euro ordaindu behar dira hori eskuratzeko. Larrialdi kasuetan erabiltzeko da biharamuneko pilula; izan ere, ohiko antisorgailu bezala erabiltzeak bi arazo larri ekar ditzake: alde batetik, sexu-transmisioko gaixotasunetarako arriskua areagotzen du eta, bestetik, osasun arazoak ekarri ahal dizkio pilula hartzen duen emakumeari. Hilerokoa aurreratzen duen konposatu hormonal da pilula. Haurdunaldia saihesteko biharamuneko pilula dohainik banatzeko erabakia Osasun Sailak martxan jarri duen Emakumea eta Osasuna programaren barruan kokatzen da. Bularreko minbizia ekiditeko programak edota menopausian eta haurdunaldian laguntzeko planak ere prestatu ditu. ○

ohiturak > san juan suak piztuko dira ekainaren 23an

Arrigunaga hondartzan biltzen dira Algortako neska-mutilak San Juan bezperan

Kristautasuna baino zaharragoa ei da San Juan gaua ospatzeko ohitura. Euskal Herri osoan bezala, Uribe Kostan ere ehunka lagunek egingo dute salto suaren gainetik, gaitzak urruntzeko asmoz. Urteko gaurik laburrena izateaz gain, askok sorginen gaua dela esaten dute, horregatik akelarrea ospatzen da herri askotan, Leioan, besteak beste. Gure arbasoek San Juan lore erramuak egiten zituzten etxea babesteko eta etxearen osasuna ona izateko. Urtebete pasa eta gero, San Juan gaueko sutara botatzen zuten erramua. Horrela, osasun ona izateaz gain, urte osoan suak edota urak eragindako kalterik ez zela izango bermatzen zuten. Getxon, auzoetan zein Arrigunagako hondartzan biltzen dira zahar eta gazteak. Berangoztarrek aldiz, txokolatada eta txerri jana eginez ospatzen dute Lantzarte auzoan. ○



[erretratua]

"Munduko herririk politena da Algorta; hondartzak, mendiak, pasealekuak eta Algortako jendea, jakina"

Ricardo Alonso Ritxi > Algortako Euskal Herria kaleko kioskerora

Bainujantzia hartu eta karramarroak hartzen, futbolearen jolasten edo portuko uretan ematen zuen eguna Ricardo Alonsok umetan: "Toalla eta txankletak ere ez genituen behar". Jada bertan bizi ez bada ere, bere txoko kutuna izaten jarraitzen du: "Txikiatiko oroitzenak dira; xarma berezia dauka". Azken zazpi urteak Euskal Herria kaleko kioskoan beharrean eman ditu Ritxi egunkari, aldizkari eta gozoki artean. Inoiz ez zaizkio falta "pitxin" edo "maitia" bezalako hitz gozoak kioskora hurbiltzen diren lagunentzat; gustura sentitzen da beharrean: "Auzo giroa dago hemen, harategia, frutadenda, arrandegia, betiko jende ezaguna...". Kioskoan bost minutu emanaz gero erraz jabetzen zara horretaz; "Egumon Ritxi" entzun eta berehala badaki atetik sartu berri denak zer nahi duen. Algortar petoa denez gero, erraz defini dezake bere herria: "Algorta munduko herririk politena da; ez zaigu ezer falta, hondartza ederrak, mendiak, pasealekuak eta Algortako jendea, jakina. Badakizu zer esaten duten: ez iezaiozu inori galdetu Algortakoa den; ez bada, gutxietsi egingo duzu eta baldin bada, galdetu aurretik esango dizu". Hala ere, betiko giroa faltan botatzen du: "Onain herritik kanpo dago dena eta horrek giroa jaitea ekarri du; dena den, baditugu lehen ez genituen abantaila asko, metroa adibidez". ○ Argazkia: **Asier Mentxaka** / Testua: **Maitane Nerekan**

cianoplan Reprografia

global printers

Villa de Pientzia 6. zbk
Antigua Golf - Getxo
Tf. 944 649 087
944 648 691
<http://www.cianoplan.es>

- Imprimatze eta plano kopiak •
- Kartelak kolorez eta z/b •
- Digitalizazio eta bektorizazio, automatikoa eta lagundua •
- Fotokopiak kolorez eta z/b •
- Era desberdinetako koadernaketak •
- Plastifikazioak •
- Cd eta DVD grabaketak eta imprimaketak •
- enmarkaketak •



2008-2011 Legegintzaldirako Plana

Hurrengo urteetarako plangintzaren berri eman die **Landak udaleko alderdiei** eta hedabideei; aurreko legegintzaldian kirol egituretan inbertitu bazuten, oraingoan **kultur alorrean egingo dutela** diote

Datozen urteotarako egitasmoetatik egiteko nagusien artean jarduera ekonomikoari eman gura dioten bultzada goraipatu du Landak, eta horren barruan sartzen dira Zubilletako enpresa zentroa eta, gerora, Martituriko jarduera ekonomikoetarako parkea (enpresentzako zentroa).

Getxoko alkate Imanol Landak orain dela gutxi aurkeztu du 2008-2011 Legegintzaldirako Plangintza, Udalean gutxiengoan gobernatzen dagoen EAJren hurrengo urteetarako "ibilbide orria". Orain arte, luzatutako aurrekontuagaz jardun du Landaren gobernu taldeak eta orain arteko oposizioko alderdien indarra eta jarreraren aurrean, hemendik aurrerako erabakiek eta hitzarmenek zeresana eman lezaketela esan daiteke. Plangintzaren aurkezpenean Landak azaldu zuenez, "gaur ezagutarazten dugun ibilbide orria aberasteko, zehazteko eta proposamenak aldatzeko prest gaude, baldin eta udalbatza osatzen duten alderdien udalerraren alde lan egiten badute, getxozarrentzat onena lortzeko helburuarekin".

Landak aurkeztu duen Plangintzak 245 ekintza aurreikusten ditu eta horietatik 66 lehenetsi dituzte. Getxoko alkateak adierazi zuenez, "jarduera nagusiak XXI. mendeari aurre egingo dion udalerrira lortzeko jauzi kualitatiboa izango dira, aurrera egiteko asmoarekin. Lortu nahi den udalerraren ezaugarriak honako hauek izango dira: bizia, dinamikoa, ekintzailea, solidarioa (barrura eta kanpora begira), Euskadin



Legegintzaldi honetan kultur alorrean egingo dira inbertsiorik handienak

errotua, euskaldunagoa, desberdinen arteko bizikidetzeta, bakea eta garapen iraunkorra rekin konprometitua".

Alkatearen esanetan, aurreko legegintzaldian inbertsioak kirol egituretan egin baziren, oraingoan kultur alorrean egingo dira. Horren albotik, hurrengo egitasmoak aipatu zituen: Getxo Antzoki berria, Santa Eugenia plazako eraikina birmoldatzea, Areetako azoka jarduera ekonomikorako

«Areetako azokaren eraikinean aurreikusten dabilzan gune ekonomiko, kultural eta sozial berria...»

gune bihurtzea etab. Legegintzaldi honetarako aurreikusten dituzten bestelako jarduerak nagusien artean daude, barbarako: estalpeko guneak ezartzea ("herritarrek merkatalgune handietara joatea saihesteko"), hiri barruko gune batzuen aldaketa (Are-

etako Geltoki plaza, San Nikola plaza, Bihotz Alai plaza, Bizkaia Zubiko ingurua etab.) herritarren arteko topaguneak sustatzeko etab.

Udalerriko jarduera ekonomiko bultzatzeko onarrikotzat jo dituzte: Zubilletan enpresentzako gunea martxan ipintzea eta epe luzera Martituriko jarduera ekonomikoaren parkea eraikitzea, Areetako azokaren eraikinean aurreikusten dabilzan gune ekonomiko, kultural eta sozial berria, edota Punta Begoñako luxuzko hotela. Beste egiteko batzuk aipatzearen: Menpekotasun planaren ekintzak zabaltzea, Algortako Gizarte Zerbitzuen eraikin berria, tratu txarrak jasaten dituzten andreetzako harrera pisua, Algorta eta Erromoko haur eskolak, gazteentzat babestutako alokairuzko eta txandakako etxebizitzak, Erromo eta Andra Mariko nagusi-etxeen berritzea, bidegorri sarea, zaborren biltze pneumatikoa, etab. ○

Badator Bapiruke!

Euskarazko udaleku irekiak berrituta datoz aurten



Orain dela urte batzuetako Bapiruke udalekuetako irudia

Azken urteotan Getxoko biztanleriak aldaketa nabaria jasan duela kontuan hartuta, Bizarra Lepoan euskara elkarteak prestatzen duen umeentzako Bapiruke programa ere zaharberitzea erabaki du. Familia etorkinen kopuruak gora egin du nabarmen udalerrian eta elkartetik ondorioztatu dutenez, horrek herriko errealitate soziolinguistikoan eragin du. Horri lotuta, elkarteak martxan jarriko dituen ekintzek eta egitasmoek irizpide berriak jarraituko dituzte. Esaterako, azken sei urteotan Bizarra Lepoanek prestatzen dituen Bapiruke udaleku irekiek lanketa berezia egingo dute kulturartekotasuna eta euskararen gainean. "2008an aurkeztzen dugun Bapirukek Getxoko errealitate sozial, kultural eta linguistiko berria izan du kontuan... hiru esparruok izan dira programa berriaren ardatzak eta horien arteko lotura ezinbestekoa izan

da Bapirukek aurkeztzen duen proposamen berritzaileak benetako zentzua lor dezan", adierazi dute elkartetik. Aipatzen diren hiru esparruak edota helburuak ondorengoak dira: euskararen sustapena, etorkinak eta euskara (ume erdaldunak euskarara hurbiltzeko asmoz), eta azkenik, irizpide pedagogikoak.

Elkainaren 23tik uztailearen 30era bitartean 3 txandatan banatuko den aurtengo Bapirukeko txanda bakoitzean 5 ikastetxe eta 5 talde izango dira; talde bakoitza 50 umez edota gazte osatuta egongo da eta horietatik 5 erdaldunak izango dira. Hala, txanda bakoitzean 250 umez gozatuko dute euskaraz aisialdiaz udaleku irekietan. Udalekuok Geroa, San Martin, Trinitarios eta Erromoko eskoletan egingo dira. Bertan jolasak, lantegiak, adierazpen ekintzak eta beste hainbat jarduerak eskainiko dituzte; hori guztia, zelan ez, euskaraz. ○

HIL HONETAN HASIKO DIRA MAIDAGANEKO TRENBIDE PASAGUNEA LURPERATZEKO LANAK

EAE jabe den trenbide azpiegituren eraikuntza zuzentzen duen eta Eusko Jaurlaritzako Garraio eta Herri Lan Sailaren mende dagoen Euskal Trenbide Sarea (ETS) erakundea hil honetako bigarren hamabostaldian emango ei die hasiera Maidaganeko trenbide pasabidea lurperatzeko lanei. Lanak 25 hilabetez luzatuko direla jakinarazi dute; horrenbestez, 2010eko uztaileko-edo amaizako egongo lirarete. Lanotarako 20.895.094 euro bideratu dituzte. Trenen zerbitzua ez da geldituko lanok direla eta, behin-behineko desbideraketak prestatuko dituzte. Lur azpian lotuko den bitartean 717,5 metroko luzera dauka, metroaren Bidezabal geltokitik Ormazako pasabideraino doan tartea, hain zuzen. Horren albotik, Ibarbengoako geltoki berria ere eraikiko dute, horregaz 7 izango dira udalerririk izango dituen metro geltokiak.

JAIETAKO KARTEL LEHIAKETEN DEIALDIAK ZABALIK DAUDE DAGOENEO

Algortako San Inazio jaietarako (uztailak 29-abuztuak 2) kartel eta maketa lehiaketetara lanak aurkezteko epea hilaren 10ean amaituko da eta lanak Algortako Villamonte kultur etxera eroan beharko dituzte. Bestalde, Portu Zaharreko jaiak (abuztuak 9-12) iragarriko dituen kartela aukeratzeko lehiaketa ere deitu dute, eta kasu honetan lanak aurkezteko epea uztailearen 4an amaituko da. Aipatutako lehiaketa bakoitzerako oinarriak edota informazio gehiago jaso gura duenak jai batzordeek eskaini dituzten (azpian agertzen diren) helbideetara jo dezake.

Harremanetarako: Saninazio jaietarako: www.mundurat.net/aixerrota Portu Zaharreko jaietarako: portuzaharra@euskalerrria.org

san inazio

autoeskola
1951n sortua

LCC - A1 - A - B - BTP
baimenak

Telletxe, 13 / Tel. 94 460 00 45
ALGORTA

Zurikaldai

JOKIN GARATE BAYO
Neguriko Etorbidea 9
T: 491 14 87
48990 NEGURI

KIMETZ GARATE AZURMENDI
Aingeruaren etorb. 4B
(sarrera, Jata Mendia) T: 460 01 87
48990 GETXO



Torre 2, ALGORTA
T: 94 491 12 71

Maitane Galarraga > diseinatzaile gaztea

“XVIII. mendean erabilitako bolumenakaz eta barruko arropagaz jolastu dut”



Maitane Galarraga areetarra

Donostian jaio bazen ere, 7 urte zituenetik Getxon bizi da Maitane Galarraga. Areetarra Moda diseinua eta Estilismoa ikasketetako azken kurtsoan dago eta ikasketa amaierarako proiektua orain dela gutxi BECen egin den diseinatzaile gazteen CreaModa lehiaketa garrantzitsuan aurkeztu zuen, baita lehenengo saria lortu ere, ia 70 parte hartzaileen aurretik, emakumezkoentzako sailean.

—Noiztik erakarri zaitu moda munduak?

—Egia esan, txikitatik gustatu izan zait arropa, mozorrotzea, eta beti ibili izan naiz saltsa horietan sartuta. Baina institutua amaitu nuenean ez nekien Bilbon kontu honen inguruko ikasketak eskaintzen zirenik eta neure burua oso gazte ikusten nuen Bartzelonara joateko. Gainera, ez dira ikasketak arruntak, orduan nire gurasoek ere ez zuten lar ondo ikusten nik hori ikasi gura izatea; nire amak agian bai, baina nire aitak ez zuten oso begi onez ikusten... Orduan, Psikologia ikasten hasi nintzen Donostian, baina lehenengo urtea bukatzean konturatu nintzen hura ez zela niretzat. Gero, jakin nuen Bilbon ikasketa hauek bazeudela eta

bertan hasi nintzen ikasten, eta oso pozik nabil, azken urtea da aurtengoa.

—CreaModa lehiaketara aurkeztu eta irabazi, zorionak lehenengo eta behin.

—Azkeneko kurtsoan nagoenez, proiektu bat egin behar genuen eta hori arropa-bilduma bat sortzea zen. Bilduma eginda genuenez lehiaketan parte hartzeko aprobetxatu genuen. Orain arte ikusle modura hurbildu izan naiz lehiaketa horretara eta betidanik iruditu zait maila altua zegoela. Garrantzi handiko lehiaketa da, Espainiatik datoz lehiakideak, Bartzelonatik, Galiziatik eta Frantziatik ere bai. Eta hala, parte hartu eta irabazi! Itzela izan da, ez nuen espero. Gainera, ikasketak amaitzekotan nagoenez urte osoa eman dut

apur bat kili-kolo, arduratuta, pentsatuz “orain zer egingo dut, hau amaituko dut eta orain zer...”. Eta sari hau irabazteak aurrera egiteko bultzada eman dit.

—Eta zertan oinarritzen da garaipena eman dizun proposamena?

—Gutxi gorabehera jolastu nahi izan dut XVIII. mendean erabiltzen zituzten bolumenakaz, eta kanporatu nahi izan ditut garai hartan erabiltzen zituzten barruko arropak, hau da, orduko barneko arropa kanporatu nahi izan dut, baita arropa hori egiteko erabiltzen zituzten ehunak ere, esaterako: lihoa, kotoia... Ehun ezberdinak tindatzen ere jolastu nahi izan dut, oso gustuko dut tindagaia-

«Azkenean ia luxu bat da horrelako gauzaren bat ikastea»

kaz ibiltzea, eta kolore deigarriak, “fosforitak” erabili ditut, arrosa oro har.

—Eta hemendik aurrera zer?

—Lehenengo, kurtsoa amaitu eta gero kanpora joateko asmoa daukat, Londredera edo, hemen ez dago ezer, hemen egin behar nuena egin dut. Egia da ikasteko hemen gero eta aukera gehiago daudela, alabaina, oraindik ere, oso tristea da ikastera kanpora joan behar izatea; ez bakarrik kanpoan kurtsoak oso garestiak direlako, kanpoan bizitzea ere oso garestia da. Azkenean luxu bat da horrelako gauzaren bat ikastea. Laguntzaren bat jasotea ere ez legoke txarto, ikaragarria da lau soineko egiten gastatzen dugun dirutza! Ehunak-eta oso garestiak dira, eta dena gure poltsikotik ordaindu behar izaten dugu. Gainera, ikasten dabilzan diseinatzaile gazteentzako lehiaketak antolatzen dituzte, eta ondo, baina horietara aurkezteko adibidez zortzi soineko eroatea eskatzen dizute, eta kontua ez da horiek sortzeak dakarren lana, horrek dakarren kostu ekonomikoa baino... ○

Goazen euskaraz berbetan

Euskal Herriko III. Mintza Eguna hilaren 14an egingo da aurten Getxon



lazko Mintza Egunean ateratako argazkia

Euskal Herriko Euskara Elkartearen federazioak, Topaguneak aurten EGIZUguz elkarlanean antolatuko du III. Mintza Eguna jaia. Izan ere, hilaren 14an, zapatuan, ospatuko den ekitaldia Getxon egingo da oraingoan.

Euskaraz berba egiteko, mintzapraktika lantzeko batzen diren kideek osatzen dituzte mintzalagun edota berbalagun taldeak; horietan, euskaraz ikasten dabilzanak batzen dira batez ere, baina euskara ama hizkuntza dutenak ere biltzen dira taldeotara, denon artean euskaraz ahalik eta gehien bizi eta gozatzeko. Orain dela urte batzuetatik hona, urtero han eta hemen berbalagun taldeetan dabilzanak batu eta jai egun bat prestatzen dute; iaz

Donostian egin zuten eta oraingoan Getxoren txanda da. Bertsolariek, txalapartariak, suziriek eta hamaiketakoak emango diete ongietorria Portu Zaharrean Euskal Herri osoko berbalagunei goizeko 11:00etan; ostean, Xabi Payaren laguntzagaz, Usategirainoko ibilaldi gidatua prestatu dute eta kalejiraren ostean Erromoko Santa Eugenia plazan egingo den bazkarian indarberrituko dira; mintzapraktika egitasmen bilakaeran lan egin duten hainbat erakunde eta lagun saritu eta gero, Patxi Perezen taldearen erromeriaren doinura dantzatuko dute.

Euskal Herrian 48 herri-eskualdeetan gauzatzen dira berbalagun taldeak eta gutxi gorabehera 2.470 kidek dihardute horietan. ○

BALKOITIK BALKOIRA ETXETXU PLAZAN HILAREN 20AN

Urtero legez ALBEK (Algortako Bertsolari Eskola) antolatzen duen Balkoitik Balkoira bertso-ikuskizunagaz hitzordua dute bertsozaleek Portu Zaharrean ekainaren 23an (22:30). Aurten balkoi batetik bestera kantuan, bertsotan jardungo duten bertsolariak Xabier Amuriza eta Maialen Lujanbio izango dira. Hala, antzina legez bertsotan egiteko modua ezagutu, bertsokera horregaz gozatu eta, horrez gainera, punta-puntako bi bertsolari bertatik bertara entzun gura dituenak badaki nora jo, doan da gainera.

XV. GETXOTAR DANTZA EGUNA, HILAK 21 ETA 22

Getxoko dantza eskolek Getxotar Dantza Eguna ospatuko dute hilaren 21ean eta 22an. Urtean zehar landutako estilo ezberdinetako dantza ikuskizunak eskainiko dituzte 4 eta 20 urte bitarteko 200 bat dantza ikasle eta berbarako dantza garaikidea, klasikoa edota flamenkoko dantzaldiak ikusi ahal izango dira jaialdian. Ekitaldiak Getxo Antzokian egingo dira (hilak 21, 12:00 eta 19:00; hilak 22, 12:30). Sarrerak gonbidapen bitartez lor daitezke.

GETXOTAR ABESBATZEN EGUNA ETA ZORTZIKO GAZTEEN TXAPELKETA

Lehenengo aldiz ospatuko da Getxotar Abesbatzen Eguna, eta aurten Erromoko Santa Eugenia plazan egingo dute hilaren 15ean 18:00etatik aurrera. Irutasun, Zozoak, Itxartu, Tangorako soinutarrak, Gorrondatxe, Gizatiar, Eskuz Esku, Biotz Alai eta Ondarreta abesbatzek parte hartuko dute. Bestalde, azken abesbatza horrek Zortziko (edo otxote) Gazteen txapelketa antolatu du (17 urtetik gora) eta izena emateko epea zabalik dago. Kanporaketak irailan hasiko dira eta irabazlea azaroaren 14an erabakiko da.

Informazio gehiago: 626894905
gaztebulegoa@getxo.net



Basurto
Algorta S.L.
altzariak

LEHEN, ORAIN ETA BETI

- **1970**az geroztik altzariak diseinatzen.
- 300 m²ko erakusketa **ZURE ZAIN!**
- **ARMAIRUAK NEURRIRA** egiten ditugu (Telletxe 4)

Telletxe 4 • T: 460 71 62 / Telletxe 15 • T: 460 42 44 • ALGORTA


Leioako jai batzordea

“Herritarrek badaukate aportatzeko asko, jaietako beste filosofia bat eraikitzeke ahalmena dute”

Ekainaren 19tik 24ra ospatuko dira San Juan jaiak. Orain arte Udalak antolatu du egitarau ofiziala, baina aurten, duela hainbat hamarkada galdutako Jai Batzordea birsortu dute herritarrek. Jaiak leioaztarrek antolatu behar dituztela deritzote.

San Juanetako aurtengo jaiak prestatzeko sortu da Jai Batzordea Leioan. Hasiberriak izanik, ekainaren 21eko egunaz arduratu dira batzordea osatzen duten sei lagunak. Antzineko Eguna ospatuko dute egun horretan, zapa-tuan. Gainera, herritarrek antolatu ohi dituzten herri ekimenak ere bultzatuko dituzte.

Orain arte Udalak antolatu izan ditu jaiak, koadrilek eta Txosna Batzordeak prestatutakoaz gainera. Horregatik erabaki zuten Jai Batzordea sortzea. *“Jaiak herriarentzako dira eta herriak antolatu behar ditu, herritarrek ez baitute parte hartu behar ikusle huts gisa”*, esan dute Jai Batzordeko lagunak. Baina Leioak lehen bazeukan Jai Batzordea, *“duela 50, 60 edo akaso 70 urte”*, jakinarazi dute. Orditik, Udalak antolatu ditu San Juanak eta herritarrentzat *“oso espazio gutxi eskaini”* izan da. Jai Batzordekoek diotenez, *“herritarrek badaukate aportatzeko asko, jaietako beste ukitu bat emateko ahalmena dute, baita eraikitzeke beste filosofia bat ere”*.



Argazkian Leioako jai batzordea

Baina orain Antzineko Egunaren prestatetan murgildurik dabilta, aspaldi antzera. Jaietako lehengo ohiturak berreskuratuz gura dituzte. Baserri bat egin dute, erromeria antolatu dute, poteoa, herri bazkaria... Bestalde, Mari Pepa eta Arlote jaietako pertsonaiak sortu dituzte. Arlote jaietan jarri ohi duten panpina da, baina badauka emaztea, Mari Pepa. Aurten hezur eta haragizko bihurtuko dituzte. Biak presente egongo dira txupinazoan,

larrain dantzan, kirolaren galan eta Antzineko Egunean, txosnetatik itzulia egiteko asmoa dute, txotx irekiera egingo dute eta sari banaketan egongo dira.

Azkenik, leioaztarrek kalera irten eta ekimen guztietan parte hartzea animatu dituzte. Gonbite berezia luzatu diete, gainera, orain hamar edo hamabost urte jaietan parte hartzen zuten baina egun jaietatik pixka bat aldentuta dauden kuadrilei. ◻

Kontzertu zikloa

Leioako **bi abesbatzen, gazte orkestraren eta bandaren** doinuak ere entzungo dira jaietan



Leioako Gazte Orkestra k hilaren 14an eskainiko du emanaldia

San Juan jaiak, ohi legez, musikaz gainezka datoz aurten ere. Musika estilo desberdinetako kontzertu andana iragarri dituzte sanjuanetarako, baina sarriegi agian rock, pop, trikitixa eta horrelako emanaldietan jartzen dugu arreta eta besterik ere badela ahaztu-edo egiten zaigu. Zorrak kitzetako, merezi dutelako eta eurek ere jaietako egitarauan lekua eduki badutelako, oraingoan San Juaneko Kontzertu Zikloaren berri eman gura dugu.

Hilaren 12an, 13an, 14an eta 22an KulturLeioako Auditoriumean bi abesbatza, orkestra bat eta musika banda ba-

ten doinuakaz gozatzeko aukera egongo da. Lau talde horiek guztiak herrikoak dira, leioaztarrek, hurrengo hauek hain zuzen: Leioako Kantika Korala (hilak 12, 20:30), Orpheo Ganbera Abesbatza (hilak 13, 20:30), Leioako Gazte Orkestra (hilak 14, 20:30) eta Leioako Musika Banda (Ikea Barri plazan, hilak 22, 13:00). Herriko talde horien kontzertuak gozatzeko 3 euroko sarrerak salgai daude dagoeneko. (Oharra: egitarauak hala iragartzen ditu kontzertuok baina aldaketak egon daitezke). ◻

Informazio gehiago: www.kulturleioa.com

HASI DA AURTENGO “MUNDIALITO”A LAMIAKON

Maiatzak azken hutsa bota zuen egunean hasi zen Lamiakon “Mundialito” izenez ezaguna den zaletuen futbol txapelketa. Kulturarteko txapelketa honetan oro har gurean bizi diren etorkinek osatutako taldeek parte hartzen dute. Aurten Latinoamerikako, Afrikako eta Euskal Herriko 24 selekzio lehiatuko dira. Euskal selekzioa jokalaririk leioaztarrek osatuta egongo da eta uztailearen 5era bitarteko aste akabu guztietan partidak egongo dira Lamiakoko zelaietan. Aurten, gainera, ezusteko ederra jaso dute antolatzaileek eta partehartzaileek, izan ere, azken partida non eta San Mamesen jokatu da. Zorte on eta onenak irabazi dezala!

LAMIAKOKO METRO GELTOKIAN IGOGAILUA IPINTZEN HASI DIRA

Leioako Udalak adierazi duenez, Lamiakoko metro geltokian igogailua ipintzeko lanak egiteko lehiaketaz Orona enpresa aukeratu dute. Enpresa horrek ipini ei ditu metroko bigarren guneko igogailu guztiak eta Lamiakoko 6 bat asteko epean ipiniko duela jakinarazi dute, hau da, gutxi gorabehera uztaile erdi aldean edo amaiteko dituzte egitekoak. Lanotara 151.191 euro bideratu dituzte.

BROKERS ANTZERKI LANA HILAREN 20AN

Madrileko Yllana taldeak *Brokers* lana estreinatu du KulturLeioan hilaren 20an. Umorezko antzezlan honen izenburuak garbi adierazten du (ingeles apur bat dakienarentzat, behintzat) ikuskizunaren gaia, argi azaltzeko hurrengo honetan datza: “grina kontsumistaren garaian arrakastaren bila dabilta lau negozio-marrazo” dira protagonistak. Antzerki lana 20:30ean hasiko da eta sarrerak 12 euro balio du.

udondo
taberna

eguneko menua eta afariak

Lehendakari Agirre,2
T: 94 463 00 45 - LEIOA

ERROTULOAK

BEST

ERA GUZTIETAKO
ERROTULOAK eta
INPRESIO DIGITALAK

egiten ditugu

e-mail: hirustab@euskalnet.net

Iparragirre etorb. 90 (Avanzada) • LEIOA • Tfno. 94 480 41 15 Fax: 94 480 41 83



- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskalduna.
- Ingelera 4 urtetik aurrera.
- Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia (sukaldea bertan), merienda.
- Eskolaz kanpoko ekintzak: musika, gitarra, adierazpena, saskibaloia, eskupilota, panderoa, bertsolaritza, euskal dantzak...
- Frontoia, futbito zelai estaliak, berdeguneak...

Artatza Auzoa 84, LEIOA • Tlf: 94.464.23.64 / 94.464.33.07
e-mail: leioa@ikastola.net • www.ikastola.net/ikasweb/leioa

Irakuzne Goiriena > Martiartuko Jai Batzordeko kidea

“Geroz eta jende gitxiago animatzen da jaietara, horri aurre egiteko zeozer pentsatu behar dugu”

Ekainaren 13tik 15era bitartean ospatuko dituzte Martiartu auzoko jaiak Erandion. Bertako Jai Batzordea lanean dabil azken uneko gauzak antolatzen. Irakuzne Goiriena batzordeko kideak azaldu digu zer prestatu duten.



Martiartuko jai batzordeko lagunak

—Zer prestatu duzue aurtengo jaietarako?
—Eguerdiko mezagaz hasiko gara 13an, barikuan. Ondoren, nagusiek hamaiketako dastatzeko aukera izango dute. Gabean, berriz, erromeriagaz gozatuko dute auzotarrrek Trikizio musika taldeagaz. Barikuan horixe da egingo duguna. Hurrengo egunean, zapatuan, plater tiroa antolatu dugu, baina Akarlandan izango da hori, ez Martiartun bertan. Hori goizean eta arrastian, sokatirako Euskadiko txapelketa jokatuko da, 640 kiloko. Gabaz, berriro ere, musikaren tartea izango da. Abernok eta Etsaiak taldeek joko dute orduan. Erromeriarako tartea ere egingo dugu, kontzertuen ostean. Domekan, berriz, ospakizuna izango da baselizan. Herriko andre batek emongo du meza moduko bat, apaizek ezinongo baitute etorri egun horretan. Horren ondoren, 12:30ean, idi probak eta umeentzako puzgarriak egongo dira. Arrastian ere jarraituko dute gauza biek.
—Zenbat lagunek hartzen duzue parte

jaien antolaketan?

—Batzordean hamar bat pertsona biltzen gara, baina jaietarako, herritarrei eskatzen diegu laguntzeko. Batzuk animatzen dira, baina asko kostatzen zaie. Ez dakit nagieria den edo, baina beti gabiltza laguntza eskatzen eta ez dugu askorik aurkitzen.
—Zuen kontura antolatzen dituzue jaiak?
—Bai, Udalak diru laguntza bat ematen digu, baina guk antolatzen dugu dana. Otsailean biltzen hasi eta jai forma ematen hasten gara, kontzerturik egingo dugun, zein talde ekarriko dugun edo berbena bakarrik, eta zer egingo dugun horretaz gainera...

—Jende asko biltzen da Martiartura?

—Geroz eta jende gitxiago animatzen da jaietara ateratzen, baina ez Goierrin bakarrik, kontu orokorra da nire iritziz. Agian, kontrolak direla eta, jendea ez da ausartzen ko-txea hartu eta honaino etortzera.
—Eta zer egingo duzue horri aurre egiteko?
—Aurten betiko lez antolatu ditugu jaiak, baina datorren urtean, zerbaitetan pentsatzen hasi beharko dugu. Igual egunean zehar ekimen gehiago jarri edo horrelako zeozer, ea egunean zehar izanik, jendea apur bat gehiago animatzen den etortzera. Izan ere, horrela ezin dugu jarraitu. ○

V. Spraikada

Uztailaren 19an Erandion burutuko dute aurtengo **Euskal Herriko Graffiti Lehiaketa**



Hamar bat graffiti margoztuko dira Erandioko ormetan

Mendaro, Getxo, Tolosa eta Gernika-Lumotik pasatu ostean, Erandion izango da aurtengo Euskal Herriko Graffiti Lehiaketa, uztailaren 19an. Txapelketa Topagunea Euskara Elkartearen Federazioak antolatu du eta badirudi arrakasta daukala: lehiaketa bosgarren ediziora iritsi izana “*duen harrena eta indarraren seinale*” dela esan du Topagunearen Gazte Saileko arduradunak, Sonia Perez Anguerak.

Topaguneko arduradunak adierazi duenez, arrakasta hori ospatzeko eta proiektuari osotasuna emateko, aldaketa nabariak izango dira aurten lehiaketaren planteamenduan.

Buruz burukoan, betiko moduan, hamar graffiti lehiatuko dira, 1.500, 1.200 eta 900 euroko sariak eskuratzeko.

Lehiaketan parte hartzeko, egin nahi den graffitien zirriborroa bidali behar da lehenengo eta behin, eta hori egiteko epea ekainaren 27a arte egongo da zabalik. Jasotako lan guztien artean, hamar onenak aukeratuko dira, eta horiek izango dira Erandioko hormetan margoztuko direnak.

Parte hartzeko baldintzei dagokienez, hurrengo betekizun hauek eskatzen dituzte antolatzaileek: 16 urtetik gorako gaztea izatea, graffitietan testuak euskaraz egitea, zirriborroa epea amaitu aurretik bidaltzea eta, finalista suertatuz gero, aukeratutako zirriborroko graffiti antolakuntzak emandako sprayekin egitea. Hortik aurrera, estiloa, teknika eta gaiak libreak dira erabat. ○

Informazio gehiago: www.topagunea.org/graffiti

AHOLKULARITZA SEXUALA ERANDION

Erandioko Udaleko Hezkuntza Sailak sexu-hezkuntzari buruzko bi programa jarri ditu abian: batetik, irakaskuntza arautuan zein ez arautuan Erandion ikasten ari diren gazte eta nerabeei zuzendutako programak; bestetik, Helduen Heziketa Iraunkorreko ikasketak egiten ari diren helduei zuzendutakoak. Bestalde, aholkularitza sexuala eskainiko duen zerbitzua sortzea ere erabaki du. Bata ikastetxeetan garatuko da eta bestea herritar guztiei zuzendutako zerbitzua izango da, sexualitatearen eta harremanen bizipenarekin zerikusia duten gaien inguruko aholkularitza zerbitzua, pertsonalizatua, pribatua eta konfidentziala. Jendearentzako zuzeneko arreta egunak: ostiralak, hamabostean behin. Orduetia: 18:00-20:00. Aholkularitza zerbitzu hau Alzaga auzoan kokatu da, lehen sorospentua zegoen lekuan, azoka zaharraren ondoan.

ERANDIOKO UDALAK 2008KO UDAL GIDA ARGITARATU DU

Erandioko Udalak Udala Zerbitzuen 2008ko gida argitaratu berri du. Udaleko Sail guztietako informazioa dakar, eta edozein profesional, funtzionario, elkarte zein herritarrentzat erabilerraza den tresna izan nahi du. Udala zerbitzuen, ekipamenduen eta jardueren berri jasotzen du argitalpenak eta Udalean egin beharreko administrazio izapideak nola egin azaltzen du. 9.200 ale argitaratu dira eta udaletxean bertan banatuko dituzte, baita liburutegi, osasun zentro, udal bulego, ikastetxe, adinekoen egoitza, kultur etxe eta bestelako zentroetan ere. Gainera, herriko kartografia eta kale izendegia ere jasotzen ditu, herriko planoz hornituta. Bestalde, herriko merkataritza eta enpresen gida ere agertzen da.

Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen

94 491 13 37



Basolanak

- Zuhaitzen landaketa
- Podak
- Itxierak
- Garbiketak
- Tratamendu fitosanitarioak

Lorategien zainketa
DEITU!

T. 94 467 17 13
F. 94 467 42 41
ERANDIO (Bizkaia)
Mobila
Asier: 629 411 838
e-posta: basolanak@terra.es

Nahi duzun lekura iristeko arazoak dituzu?



Etxebizitarako igogailuak
Eskailera igogailuak
Plataformak

Arazoei agur... **902 54 08 54**



www.arlan.biz

XXIII. HERRI IBILALDIA EKAINAREN 14AN

Ekainaren 1eko euria dela eta, Urko Mendi Taldeak antolatutako Herri ibilaldia bertan behera utzi eta ekainaren 14ra pasatzea erabaki zuten antolatzaileek. XXIII. edizioan bi lasterketa egingo dira; bata, helduentzat 18 kilometrokoa eta bestea, 8-10 kilometro artekoa gaztetxoentzat. Biak Sopelako Batzokitik abiatuko dira. Helmugan, odoloste pintxoak, lukainka eta edariak izango dira parte hartzaileentzat; baita sorpresatxoren bat ere. Txikientzat opariak egongo dira. XXIII. herri-ibilaldia herriko dendari eta erakunde gehientsuenen laguntza izan du.

GAZTEEK AUKERATU DITUZTE SANPEDROETAKO JAIETARAKO EKINTZAK

Gazte Informazio bulegoak antolatutako bozketari esker, herriko neska-mutilek aukeratu dituzte San Pedro jaietan Gaztegunean izango diren ekintzak. Ekainaren 26an quad zirkuitua, ping-pong, futbolinak eta igelarien jokoa egongo da. Hurrengo egunean, Wii, Play Station eta Paint ball-ean aritzeko aukera izango da. Azkenik, 29rako, eskalada, tirolina, arku jaurtiketa eta segway zirkuitua antolatu dute. 26an izan ezik, gainontzeko egunetan goiz eta arratsaldean izango dira ekintzak.

40 EURO ORDAINDU BEHARKO DITUZTE SURFLARI FEDERATUEK

Aurreko urtean bezala, aurten ere TAO ordaindu beharra dago Arrietara eta Solandota kaleetan eta Barinatxe hondartzako aparkalekuan. Maiatzaren 20an hartutako erabakia dela eta, Euskal Herriko Surf Federazioan federatutako surflariak 40 euroren truke lortu ahal izango dute uda osorako txartela. Aurreko urteetan bezala, irailaren 30a arte egongo da TAOa martxan.

Sopelako II. Skate Open

eta Skate Expresion ekimena antolatu du Gazteria Sailak ekainaren 21 eta 22an



Balea pilotalekuan egingo dira probak

Geroz eta skate zaletu gehiago daude Uribe Kostan. Badaude etxetik patinete gainean irten eta "truk" berriak prestatzen orduak eta orduak ematen dituztenak. Hauek futbola edo beste hainbat kirolek jasotzen duten erreko-nozimendua izatea aldarrikatzen dute. Sopelako Udaleko Gazteria Sailak eta Gazte Informazio Bulegoak skateari dedikatutako asteburu handia prestatu dute ekainaren 21 eta 22rako. Dena antolatzeko, QIS Skateboards Rider Skate, Soda eta Alai-ren laguntza izan dute.

Ekainaren 21ean, goizeko 10etan hasiko da proba Balea pilotalekuan. Honetan 16 urtetik beherakoek hartuko dute parte. Arratsaldean 16 urtetik gorakoen txanda izango da. Hiru sari banatuko dira, 1000, 500 eta 300 eurokoak eta 200 euroko sari berezia izango du herriko onenak. Igandean, Skate Expresion egingo da Iturrieta Parkean eta BBK Skate Tour Eskolako ikastaroetan parte hartu ahal izango da. 16:00etatik aurrera, hilaren 28an egingo den finale-rako baliagarria izango den sailkapen txapelketa egingo dute. ○

Beisbola

Ander Deuna Ikastolak antolatu du Espainiako Beisbol Txapelketa



Gutzira estatu osotik etorritako 13 talde lehiatuko dira Sopelan

Futbol izarrek itzalean usten dituzte askotan gainontzeko kirolariak eta ez zaie mezezi duten garrantzia ematen. Beisbola mesprezu hori sufritu behar duen kirolerako bat da edo hori uste du behintzat Koldo Izagirrek, San Inazio Beisbol taldeko eta Bizkaiko Beisbol Federazioko lehendakariak: "El Correon adibidez, petanka txapelketetako emaitzak ateratzen dituzte baina sekula ez beisbolarenak". Egoera hori larriagoa gertatzen da, Bizkaian Beisbol ligako gorengo kategorian dagoen talde bat dagoela kontuan hartzen badugu, San Inazio Beisbol Taldea hain zuzen ere. Gaur egun, Ander Deuna Ikastolako taldearekin elkarlanean lan egiten dute; izan ere, Juan Carlos Neira, Sopelako ikastolako entrenatzailea, San Inazio jokalaria da.

Ekainaren 26tik 29ra Espainiako Beisbol Federazioaren txapelketa ofiziala egingo da Urko kiroldegian eta Ander Deuna Ikastola izango da antolaketaz arduratuko

dena. Katalunia, Madril, Almeria, Gijon, Kordoba, Iruñea eta Bizkaiko 250 gazte batuko dira; hauekin batera teknikoak, delegatuak, epaileak, komisarioak eta animatzeko prest etorriko diren guraso eta lagunak. Gutzira 13 taldek hartuko dute parte; horietatik 4 euskaldunak izango dira (Iruñeko hiru eta Ander Deuna-San Inazio Bizkaiko taldea). Parte hartzaileek ikastolan bertan bazkaldu eta lo egingo

«Ekainaren 26tik 29ra izango da txapelketa Urko kiroldegian»

dute, nahiz eta goizeko 9etatik gaueko 9etara Urkon egongo diren, txapelketan. Koldo Izagirrek esandakoaren arabera, kataluniarrak dira irabazteko aukera gehien dauzkatenak, bertan oso profesionalizatuta baitago beisbola. Irabazi ala ez, denek izango dute primeran pasatzeko aukera. ○

DIDAK hamilton IDIOMAS

Ingelesa, Frantsesa eta Alemana

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
 - Eskolaz kanpoko ekintzak
 - Maila guztiak
- Ingelesa 3 urtetik aurrera
 - Talde txikiak
- Ingalaterran eta Estatu Batuetan egonaldiak

Dr. Landa, 6 / 48600 Sopela.
Tel: 94 676 30 12
info@didakhamilton.com

4 bide pinturak



Loroño 2 • Tlf/Fax 94 676 29 92 • SOPELA
Iturribarria 3 • Tlf: 94 442 01 55 • BILBO

ANDER DEVNA IKASTOLA

- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta berrikuntza

Gatzarrine z/g. SOPELANA
Tfnoa.: 94 676 02 66
Email.: sopela@ikastola.net

LAIKAK Taberna

Bentatu, 2
48600 Sopela
Tlf. 94 676 03 28

Egunkariak prentsa eta aldizkariak

nahi izanez gero,
etxera eramaten dizugu
egunkaria!!!

Algortako etorbidea, 78
T.: 94 491 27 34

KULTURA JARDUNALDIAK AZKEN TXANPAN

X. Kultura Jardunaldiak azken txanpan sartu dira. Maiatzetik herriko elkarte ezberdinek antolatutako ekintzak izan dira gazte zein nagusientzat. Ekainaren 14 eta 15erako Ignacio Pascualen oroimenez egindako futbol txapelketa antolatu du Berangoko Futbol Taldeak. Hilaren 18an, ondare kulturalari buruzko jardunaldiak egongo dira kultur etxean. 20an emanaldi berezia izango da musika eskolako umeen eskutik eta 23an San Juan gaua ospatuko dute txokolatea eta txerria jaten eta "Kanpanolue" erromeriaren erritmora dantzatzen Lantzarte auzoan.

UDARAKO EKINTZEN EGUTEGIA

Urtero bezala, haur eta gazteentzako programa berezia antolatu du Kultur Etxeak 2008ko udarako. Gazte Euskaltegia, Udako Ludokluba eta Ludotxikia egitasmoak martxan egongo dira ekainaren 30etik uztailaren 18ra bitartean. Hiru horiek, 3 eta 12 urte bitarteko umei bideratuta egongo dira. 13-18 urte bitartekoentzat ere programazio berezia antolatu dute, laster egongo dena kalean. Programa bakoitza non garatuko den onartuen zerrendarekin argitaratuko da. Basondo eta Santimamiñerako irteerak, olimpiada alternatiboak, tailerrak eta ur jolasak egingo dituzte, beste gauza askoren artean.

"GEUREAN EGUNA" ANTOLATU DU ARIKU-K

Euskara eta euskal kultura bultzatzea da 2003an sortu zen Ariku kultur elkartearen helburu nagusia. Horretarako makina bat ekitaldi antolatzen dituzte urtean zehar, horien artean *Geurean eguna*. Bada, ekainaren 21ean arratsaldeko seietatik aurrera ospatuko dute herrian Arikuko kideek jai hori. Kukubiltxoren emankizuna, umeentzako herri kirolak eta jaiari amaiera emateko, sagardo festa.

II. Umeen bizikleta festa

antolatu du Berangoko Txirrindulari Elkarteak ekainaren 14 eta 15erako



www.ubfesta.org webgunean aurki daiteke jaialdiaren egitaraua

Aurreko urtean izandako arrakasta ikusita, II. Umeen Bizikleta Festa antolatzea erabaki dute Berangoko Txirrindulari Elkarteak lagunek. Bizikletak garraio bide alternatibo bezala betetzen duen funtzioa azpimarratzea eta gaztetxoak txirrindularitzaren mundura hurbiltzea dira ekainaren 14an eta 15ean ospatuko den jaialdiaren helburuak.

Familia izango da ekintza guztien ardatz nagusia. Zapatu eguerdian hasiko da dena, puzgarriekin eta umeentzako jolasekin. Honez gain, txirrindulari ezagunen sinadurak lortzeko aukera, erakusketak, Bizkaiko eskolen lasterketa eta ziklo-

kros eta MTB erakustaldiak izango dira egun osoan zehar. Domekan, guraso eta seme-alabentzako bizikleta martxarekin, pailazoekin eta trialsin erakustaldiarekin gozatu ahal izango dute Moreaga parkera hurbiltzen direnek. Arratsaldeko 8etan, sari banaketarekin esango diote agur jaialdiari. Egitarau osoa ezagutzeko zein izena emateko www.ubfesta.org webgunea jarri dute martxan. Festa aurrera eramateko, hainbat erakunderen babesa izan dute, Bizkaiko Foru Aldundia, Bizkaiko Federakuntza Txirrindularitza eta Getxo eta Berangoko Udarena, besteak beste. ○

Matxalen de Pedro > aktorea

"Nahiko baikorra naiz euskal antzerkiaren egoerari dagokionean"



Matxalen de Pedro aktorea Begoñako eskaileretan

Lehenengo urteak Algortan eman bazituen ere, 12 urte zituenetik Plentzian bizi izan da Matxalen de Pedro aktorea: "*Uda pasatzera joan eta ez ginen sekula bueltatu*". 18 urte bete zituenean Bartzelonako Institut del Teatren eman zuen izena; gaztetatik argi zeukan bere etorkizuna eszenatokitant zegoela: "*Bartzelona aukeratu nuen aurretik ezagutzen nuelako eta antzerkian, ez zineren, begira lan egiten zuen eskola zelako hangoa*". Bertan, antzerki fisikoan edo keinu antzerkian espezializatu zen. Zerbait sortzeko aurretik bizi beharreko ikerketa prozesua da aktore lanetik gogokoen duena: "*Antzerkia ez da beti testu batetik abiatzen, ideiak dira abiapuntua eta horietatik dena sortu behar duzu: pertsonaiak, irudiak...*". Hala ere, dena ez da polita antzerkigintzan; beste edozein enpresatan bezala oso garrantzitsua da talde lana eta kide batek huts egingen duenean arazoak sor daitezke.

Azken boladan, antzokitian zein pan-

taila handi eta txikian ikusi ahal izan dugu Matxalen de Pedro. "Ohean" antzezlanarekin Euskal Herriko antzokitiatik dabil orain eta estreinatu berri den Diego de Fandos *Cosmos* filmean parte hartu du: "*Bata zein bestea erronkak izan dira niretzat. Cosmos oso film duina da; bi sekuentzia labur ditut eta bat ohe sekuentzia bat zela ikustean beldurtu egin nintzen; dena den, ekipoko lan-*

«Cosmos pelikula estreinatuberrian parte hartu du de Pedrok»

gileak oso jatorrak izan ziren eta gustura lan egin nuen. Ohean-en testu antzerkia landu behar izan dut, hortik erronka". Laster umeentzako keinu eta txotxongilo antzezlan batekin hasi behar du. Euskal Herrian egindako antzerkiaren egoeraz berba egiterakoan baikor agertzen da de Pedro: "*Poztu nau hemen aurkitutakoak. Hala ere, asko dago egiteko oraindik*". ○



TXIBERRI
edantokia
frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ
T: 94 676 07 15



Teléfono: 946 761 128

Ajuria
taberna

Andrés Cortina 2

ALGORTA



Sarrikobaso 4 -ALGORTA
Tf.: 944 306 493



kopak eta
giro jatorra

Alangobarri, 4 Tel. 94 460 30 03
ALGORTA



AIXERROTA BHI

24 URTE EUSKARAZ IRAKASTEN

• TEKNOLOGIKOA
BATXILERGOAK • NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
• GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (DBH) B ETA D EREDUAK
ZEREGINAK IKASTEKO GELA (A ETA D EREDUAK)

INFORMAZIO GEHIAGO: WWW.AIXERROTABHI.NET / 94 491 17 86



UDAL ALDIZKARIAREN ALE BEREZIA GORLIZEN

Hondartzan burutzen ari diren obren berri emateko asmoz, *Gorliz gehituz* aldizkariaren ale berezia kaleratu du Gorlizko Udalak. Bertan Hondartzaren Egokitze eta Ordenatze egitasmoa azaltzen dute, hiru ataletan banatuta: egitasmo orokorra, egitasmoa aldeetan eta estolderia lanei dagokiena. Interes handiko obrak dira hondartzakoak, horregatik, etxez etxe banatzeaz gain, www.gorliz.net webgunean jarri dute aldizkaria eskuragarri.

BARRIKA PIRAGUA: ATEAK ZABALTZEKO JARDUNALDIAK

Ateak Zabaltzeko Jardunaldiak antolatu ditu Barrika Piragua Taldeak ekainaren 21erako. Honekin, piraguismoa sustatu eta kirol hau ezagutzen ez duten pertsonak arraunean ibiltzera bultzatu nahi dituzte. Parte hartzeko ezinbestekoa da igeri egiten jakitea. Barrika Piragua Taldeko prestatzaileek koordinatuko dute jarduera eta hurbiltzen direnek klubeko palarien laguntza izango dute. Izena emateko, 600 90 21 25 zenbakira deitu behar da.

URDULIZKO OSPITALEA ERAIKITZEKO LURRAK

Joan den maiatzaren 20an burututako osoko bilkuran, Urdulizko Udalak eskualderako ospitale berria eraikitze beharrezkoak diren lurak eskuratzea erabaki zuen, Eusko Jauriaritzaren esku utziko dituenak. Andra Mari Eliza eta Santa Mariñeko haitzen artean dago 13.000 metro koadroko lursail hau.

LEMOIZ

Armintza Pilota Kirol Elkartea, Bizkaiko txapeladuna!



Maiatzaren 17an jokatu zuten Bizkaiko finala

Geroz eta indartsuago dago Armintzako Pilota Kirol Elkartea. Orain dela zortzi urte inguru sortu zen eta gaur egun adin guztietako 30 neska-mutil baino gehiagok osatzen dute. Maiatzaren 17an Bizkaiko txapelketa irabazi zuten haur, benjamin eta kadete kategorietan. Oso pozik daude egindako lanarekin: *“Herri txikia garela kontuan harturik azpimarratzekoa da hainbeste kide izatea. Gainera, urtetik urtera jende berria hurbiltzen da”*, esan digu Alvaro Portero monitorea. Beste eskoletan ez bezala, neska pala-

ri taldea daukate Armintzan: *“Ilusio handia daukate eta gehien aurreratzeko ari direnak dira”*. Lortutako emaitzak ezinezkoak izango lirakeke laguntzera eta animatzera hurbiltzen direnen parte hartzea barik; horiei guztiei eskerrak eman nahi dizkiete elkarte-lagunek: *“Euren laguntza ezinbestekoa zaigu”*. Ekainaren 8tik aurrera barne txapelketa jokatu dute benjamin eta alebin kategorietakoek; uztailean aldiz, seniorren txanda izango da. Honez gain, herri arteko txapelketa irabazteko aukera daukate. ○

Ekainak 11 - 30

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: agendauk@aldizkaria.biz • Tel.: 94 491 13 37

ERAKUSKETAK

GETXO

- **Kultur etxeak antolatutako tailerretako ikasleak: arte aplikatuak.** Algortako kultur etxea. Hilaren 9tik 14ra.
- **Antzezaleak elkartean ikasleak.** Algortako kultur etxea. Hilaren 16tik 28ra.
- **Gizatiar elkartean pintura tailerra.** Erromoko kultur etxea. Hilaren 23tik 27ra.

LEIOA

- **Zine materiala.** Ambiguo. Hilaren 29ra arte.

ERANDIO

- **Fotonatura.** Atxazpe Mendi Taldea. Josu Muruetako erakusketa aretoan. Hilaren 17tik 30era.

URDULIZ

- **Egur eta ahoziri lanak.** Ikaileen lanak. Kultur etxea. Hilaren 17tik 30era.

MUSIKA

GETXO

- **Getxotar abesbatzen eguna.** Erromoko Santa Eugenia plaza. Hilaren 15a. 18:00.

ERANDIO

- **Kanta eguna.** Altzaga Ikastolako Gurasoen elkarteak antolatuta. Hilaren 15a, 11:30. Irailaren 23a plaza.
- **Entzunaldiak Josu Muruetan.** Hilaren 10ean, flauta (19:00); hilaren 11n, haria (19:00); hilaren 12an, gitarra (19:30); hilaren 18an, kurtso bukaerako kontzertua (19:30); hilaren 19an, Musika Eskolako Orkestra berriaren aurkezpen-kontzertua (19:30).

► **Bertsolaritza**

Balkoitik balkoira Portu Zaharrean

Laster egitekoa da Portu Zaharreko Etxetxu plazan *Balkoitik balkoira* bertso saio hunkigarria. Aurten inolako aurkezpenik behar ez duten Xabier Amuriza eta Maialen Lujanbio bertsolari handiak lehian arituko dira Algortako Bertsolari Eskolak eta Getxoko Udaleko Euskara Zerbitzuak antolatutako ikuskizun eder honetan.

• **Non:** Algortako Etxetxu plaza • **Noiz:** ekainaren 20a • **Ordua:** 22:30

LEIOA

- **Leioa kantika korala.** Auditorium. Hilaren 12a, 20:00.
- **Orpheo ganbera abesbatza.** Auditorium. Hilaren 13a, 20:30.
- **Leioako gazte orkestra.** Auditorium. Hilaren 14a, 20:00.
- **Leioako musika banda.** Auditorium. Hilaren 15a, 13:00.

ANTZERKIA

LEIOA

► Brokers.

KulturLeioako Auditoriuma. Hilaren 20an, 20:30.

BESTEAK

GETXO

- **XV. Getxotar dantza eguna.** Getxo Antzokia. Ekainak 21, Ana Lararen eskola (12:00) eta Erromoko Carmen Veraren dantza eskola (19:00). Ekainak 22, Las Arenas flamenko eskola (12:00).

- **III. Bigarren eskuko liburuen azoka solidarioa.** Algortako geltoki plaza. Ekainaren 25etik 29ra.
- **Kontalarien kluba, denboraldiaren amaiera.** Algortako kultur etxea. Ekainak 13, 19:00.
- **Mintza eguna.** Egun osoan zehar. Ekainaren 14a

GORLIZ

- **Euskaraz olgetan.** 1-10 urte bitartekoentzat. Iberrebarri. Ekainaren 14a. 12:00-14:00.
- **Bizkaiko esku-pilota txapelketa.** Pilotalekuan. Ekainak 15 eta 21ean, 22:30.

ERANDIO

- **Euskal selekzioen aldeko eguna Astrabuduan.** Rokodromoa, erakustaldiak, kalejira, puzgarriak... Josu Murueta plaza. Hilaren 14a, egun osoan zehar.
- **II Martxa zikloturista.** Irteera, Irailaren 23a plaza, 09:00. Hilaren 14a. Argibideak: 94 467 61 01.

► Dantzaldiak plazetan.

Los plameras orkestra. Josu Murueta plazan, hilaren 15ean, 18:00-21:00. Sole Silver orkestra. Irailaren 23a plazan, hilaren 22an, 18:00-21:00.

PLENTZIA

- **Hitzaldiak.** Placentia de Butron Museoa antolatuta, 19:30ean, Goñi portalean. Ekainaren 27an, “Scapa Flow, Escocia. Ejemplo de memoria marítima sumergida”.
- Hizlaria: Xabier Armendariz. Ekainaren 28an, “Arqueología subacuática en ríos y lagos”.
- Hizlaria: Jose Manuel Mates Luque.

SOPELA

- **Skate Open.** Ekainaren 21 eta 22an. Iturrieta parkea. Egun osoan zehar.

aldai

TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAIERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf: 460 90 31
48990 ALGORTA

VASA



KLIMATIZAZIO

INGENIARITZA

INSTALAZIOA

MANTENIMENDUA

Otxandategi tar Simon 114

48640 Berango, Bizkaia

Tel. 94 668 15 51

Faxa. 94 66829 92

e-mail: vasa@vasa.biz



ADITUAK GARA PINTXO ETA BOKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51
ALGORTA




Eskulangintza azoka

Esku finak eta zehatzak bezain latzak ziurrenik artisauenak. Eskuak eta atzamarrak doitasunez erabiltzeaz edota erabili beharraz gainera irudimen muga bakoa ere beharrezkoa daukate, berritu, liluratu eta saldu gura badute. Otera, batzuek ez dituzte letra larriz idazten den Artearen partaidetzat edota sortzailatzat jotzen. Artearen langile-klasea ei dira. Euren lanak bakarka eraikin ospetsu handietan, sartzeko ordaindu behar den horietan, ikusteko itzaropena galdu duten horientzat da gure gorazarre umil hau.

Argazkiak: **Asier Mentxaka**





GETXOKO UDAL LIBURUTEGIAK. UTZITAKO ARGAZKA

Periko asto(ar)en abenturak eta kalenturak

Azterketa sakonik egiteko denborarik ez dugu eduki, baina jakin ahal izan dugunez garai batean asto askok Periko izena zuten.

Literaturan, ipuinetan eta nobeletan; ahozko tradizioan, kantuetan eta kondairetan, Periko izeneko astoaren (edo izen bera zuten asto desberdinen) abenturak kontatzen dira. Horietatik ondoriozta daiteke asto haiek zuten trebetasunagatik edota

jakinduriagatik gainontzeko astoetatik bereizten zirela, asto haiek gizakion antzeko ezaugarriak erakusten ei zituzten. Ematen du

Areetan garai hartan (antzina) erakutsitako astoak ere bazuela berezirik zerbat, irudimena erabiliz igarri liteke, guxtienez bi hanken gainean ibiltzeko gai bazela. Beste dohairik izango zuen ziurrenik!

Bestalde, gizakia ere bada astakeriak egiteko gai, orduan...

[berbetan]

Getxon bizi da Patxi Olaso, baina Otxandiokoa du familia osoa eta Zorrotzan igaro du haurtzaroa eta gaztaroa. Etxean ikasi zuen euskaraz eta ez du ahaztu zaletasun hori. *Cianoplan* enpresako buru izan da bost hamarkadatan, ia sorreratik. Bizitza osoa eman du enpresa mimatzen eta zaintzen, eta orain, ezin albo batera utzi. Egunero joaten da bulegora ordenagailuan lan egitera; hori bai, “kontu pertsonaletan” lan egiten du, enpresako zereginetan egin barik. Auzo elkartean, ikastolan... hainbat ekimenetan parte hartu zuen bere garaian. Birlobak klasean utzi ditu elkarrizketara etorri aurretik. Erretiroa hartu duenetik asko aldatu zaio bizitza eta, orain, bestelako kontuekin gozatzeko beta iritsi zaio.

Patxi Olaso

Herriko gizona

Testua: **Zuberoa Iturburu** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

—Birlobak eskolan utzita etorri zara elkarrizketa egitera. Erretiratu zarenetik bestelako behar batzuk sortu zaizkizu?

—Bai, hiru birloba eraman ditut Geroara eta beste bat Gobelara. Patuak eraginda, lehenengo hiru horiek duela hilabete eramaten ditut eskolara eta laugarrena orain bizpahiru egun. Oso pozik nago birlobei laguntzarekin. Bizitzako beste alde bat da eta gozatzen nabil.

—*Cianoplan* enpresako buru izan zara lauzpabost hamarkadetan. Enpresa gizona zarela esan daiteke?

—Ez, ez, ez... Oso gazte hasi nintzen bertan lanean, enpresa sortu berria zela. Istripu baten ondorioz, bertako ardura hartu behar izan nuen hamazazpi urterekin. Bizitza osoa eman dut *Cianoplan*en.

—Familiarteko enpresa da?

—Bai, gaur egun bai. Nire lau seme-alabek bertan egin dute lan edo enpresari laguntzen diote. Orain urte batzuk, oraindik agerikoagoa zen. Gauza positiboa da hori, baina ez da komeni arrautzak otzara berean egotea.

—Zein da zure filosofia enpresari buruz?

—Enpresa ez da zuzendaritzaren edo jabearen kontua, bertan lanean dabiltzan lagun guztiena baizik. Orain erretiroa hartu du-

ten bi lagunetatik, batak hamalau urteetatik lan egin du *Cianoplan* enpresan eta besteak, hogei zituenetik. Gaur egun ere adin bertsuan lanean hasi diren langile batzuk baditugu. Hortaz, jendearekiko konfiantzan oinarritzen da bertako filosofia. Bestalde, merkatuak norantz jo duen ohartu gara eta lokalik aiposenak bilatzen saiatu gara bezeroei harrerarik onena emateko. Hori bai, dauden teknikarik aurreratuenak erabiltzen ditugu. Bilbon lau lokal ditugu, beste bat Barakaldon, seigarrena Zamudioko Parke Teknologikoan eta, azkena hau xe, Areetan.

—Bizitza asko aldatu zaizu bat-batean, ezta?

“Enpresa ez da zuzendaritzaren edo jabeen kontua, langile guztiena baizik”

—Bai, ikaragarri. Oso gazte hasi nintzen lanean eta, egoeraren eraginez, gazte ezkondu nintzen. Ezkondu aurretik, emaztea kanpoan zebilen eta ez zen oso egoera eroso, horregatik erabaki genuen ezkonetzea. Hari esker hazi da *Cianoplan* hazi


den moduan. Izan ere, ordu asko eta asko lan egin behar izan dut enpresa aurrera ateratzeko, asteburuak barne. Lan bolumen ikaragarria genuen. Pazientzia handia izan du emazteak nirekin eta ez nau etxetik bota (barre egin du). Garrantzi handikoa da gai hori.

—Orain enpresari loturik jarraitzen duzu, egunero zatorz bulegora, ezta?

—Bai, hala da. Orain ordenagailuan idazten ditut egindako bidaiei buruzko oharra, argazkiak txertatzen dizkiet, baita beste kontu batzuk egin ere. Esaterako, nire sendiaren zuhaitz genealogikoa egitea enkargatu nuen eta orain, garbira pasatzen nabil. Horrela betetzen dut denbora.

—Nola laburbil daiteke egun bat zure egunerokoa?

—Garaia arabera, goizeko zazpitan jaiki eta ibiltzera noa. Oraintsu ez, nagi bainabil azken egunotan. Gero, bederatzia aldera enpresara nator eta ordenagailuan



lanean hasten naiz, lehen aipatu kontu personalak egiten ditut. Seme-alabekin bazkaltzera noa beranduago eta arratsaldea etxean ematen dut. Horrelako bizitza daramat azkenaldian.

—Ospe txarra dute enpresarioek, zergatik? —Beno, nik ez dut uste enpresario guztiek ospe txarra dutenik, bakoitzaren arabera. Denok ez dugu ospe txarririk, beno, jadanik ni ez naiz enpresario. Ezin uler dezaket ongi-zaterik, enpresariorik edo kooperatibarik gabe eta enpresarioak onurarik ateratzen ez duen enpresak garapen txikia izango du.

—Krisia dabil guztien ahotan. —Bai, eta egia da krisian murgilduta gabiltzala. Baina aurreikusitako kontua da. Etxebizitzaren prezioek iragarri zuten. Batetik, lurren jabeek prezio itzelak jartzen dizkiete lurrei, ez dakit sen onak edo txarrak eraginda. Horrek etxebizitzaren azkenengo prezioa garestitzea eragiten du. Bestetik, Udalgatik daude. Hori ere gai serioa da. Haren egitasmoa gauzatu ahal izateko, Udalak etxebizitzaren sustatzaileari eskatutakoaz ari naiz. Azkenik, eraikitzaileek lortzen dituzten onurak ere hor daude, noski.

—Orain, erretiratu berri, zer gomendatuko zenioke lanean hasiberria den gazte bati? —Agian, lor ditzakeen etekinen artean, zati handi bat instalazio zein makina berrietan eta garapenean inberti ditzala esango nioke. Izan ere, etekinak hobeto bizitzeko direla uste izanez gero, enpresak ez du etorkizunik izango. Prestatu beharra dago, oinak lurrean eta etengabe berritzen. Are gehiago gaur egun, teknologia asko aurreratu baita. Enpresa honetan planoak egiteko makinak baditugu. Orain darabilgun sistema 1992. urte inguruan hasi ziren erabiltzen mundu mailan. Urte biren buruan jarri genuen guk lehenengo makina. Gero, sistema digitala garatzen joan ginen eta lokal guztietara hedatzen hasi ginen. Aldaketa oso handia izan zen. Negozioak emandako etekinak enpresan inbertitzeak posible egin du haren garapena.

—Enpresaren bitartez UK gure aldzkaria lagundu duzu beti, publikitatea txertatuz,

fotokopiak eta kartelak musutruk eginez... Zergatik?

—Zuzendariaren eta bere sendiaren lagunak gara betidanik. Gainera, euskara garatzeko oso egitasmo ona dela deritzogu.

—Zu, gainera, euskaldun zaharra zara. Getxon bizi bazara ere, Otxandiokoa ei zara.

—Bai, familia osoa da Otxandiokoa. Jasotzeko makinaren enpresa batean lan egiten

“Geroako gelak soto batean zeuden ikastola sortu zenean eta etxeetatik diru eske joan ginen”

zuen aitak, puntako enpresa zen gainera, eta Zorrotzara eraman zuten. Beraz, Zorrotzara bizitzera etorri ziren ni amaren sabelean nintzela. Iritsi eta lau hilabetera jaio nintzen. Gaztaroa Zorrotzan eman nuen, ezkondu arte. Etxean beti hitz egin dugu euskaraz, kalean ez, noski, Zorrotza ez delako gune euskalduna; baina etxean bai eta gurasoei esker dakit dakidan euskara. Seme-alabak eta birlobak ere euskaldunak dira.

—Otxandiora joaten zineten?

—Bai, oroitzen dut udan bizpahiru astez joan ohi ginela, zortzi edo bederatzita urte nituela, eta gero, Zorrotzara bueltan berriro. —Zer oroitzapen duzu garai hartatik? Izan ere, alde handia dago Otxandio eta Zorrotzaren artean.

—Uff! Bai, alde izugarria dago bien artean, ikaragarria. Ni zoriontsua izan nintzen. Garai horiek beharrik kontuan hartuta, baina ni

“1.500. urtera arteko arbasoak ditut, ez ziren Euskal Herritik atera, Gipuzkoa, Araba eta Bizkaian geratu ziren”

zoriontsua nintzen. Gaur egun, oraindik orain, garaiok lagunakaz elkartzen naiz bi hilabete behin. Horretaz gainera, Zorrotzako Lagunak izeneko elkarteko kide naiz sorreratik. Duela 40 bat urte sortu genuen eta, orain, txoko txiki bat dugu Zorrotzan. Ostegunero elkartu ohi naiz han lagunakaz.

—Orduan, nolatan etorri zinen Getxora?

—Ezkondu eta Bilboko Prim kalera joan ginen bizitzera. Lau haurrekin batera bizi ginen han eta, buelta bat egiteko, kotxea hartu behar izaten genuen. Ni kotxeen aurkakoa naiz eta ez nengoen oso gustura egoera harekin. Beste zerbaitetan pentsatzeko garaia iritsi zela ondorioztatu genuen. Hainbat bikote elkartu ginen eta etxe ba-

tzuk eraiki genituen Aingeru Etorbidean eta bertan jarraitzen dugu. Beno, ez etxe hartan, geroztik birritan aldatu baitugu etxez, baina bai Getxon. Andra Mari auzoan bizi gara.

—Ingurua gustuko duzu beraz?

—Bai, asko, bedeinkapena da bertan bizitzea.

—Saltsa guztietan sartuta ibili omen zara gainera.

—Nire ezinegonari esker, Geroa Ikastolako gurasoen juntan hasi nintzen. Garai zaila zen hura, hainbat bileratara joan behar izaten genuen. Ikastola jadanik fundatuta zegoen orduan, baina Itxas Argiaren lokaletan zegoen. Soto batean zeuden klaseak eta, askotan, ur fekalet lokalak hartzen zuten. Beraz, konponbidea bilatu genuen. Ekonomikoki laguntzerik zuten etxeetara joan ginen diru eske.

—Auzokideen Elkartean ere ibili zara, ezta?

—Bai, guk sortu genuen eta gauza politak egin genituen. Udaletxearekin egiten genituen bilera asko eta, horien ondorioz, hainbat gauza lortu genuen auzorako. Garai hartan, taxiek ez zuten bentatik aurrera pasatu nahi, errepidea oso txarto zegoelako.

Azkenean, ingurua konpontzea lortu genuen. Gainera, Udalarri babesa eskaini genion Aixerrota institutuko eraikina erosi zuenean. Orduan Unamuno kolegioa zegoen bertan, pribatua zen. Baina jabeek ematen zioten dirua kirol instalazioak egiteko inbertitu zuen eta desfase bat izan zuen gaixoak. Kooperatiba bat egiten saiatu zen, baina azkenean, Udalarri saldu zion eraikina prezio onean. Bestalde, autobusa auzoan sartzera ere lortu genuen. Oso gutxi sartzen ziren Andra Marin. Gure ekimenez, ordea, autobus guztiek auzoan buelta egitea lortu genuen. Batzuk Azkorrira ere iristen ziren.

—Askok aldatu da inguru hori.

—Bai, asko. Institutuaren inguru guztia nekazal lurrak ziren lehen. Orain, berriz, txaletez eta etxebizitzaz beterik dago dena. Eskualde osoa aldatu da.

—Onerako?

—Nik baietz uste dut. Orokorrean oso ondo kokatuta eta komunikatuta dago, metroa dugu, autobusak daude... eta ingurua oso ederra da. Adibidez, lehen ia pentsazina zen Urduliz edo Plentziara joatea. Erandio, adibidez, asko hobetu da.

—Entzun dut zuen familia Bergaratik datorrela, orain mende batzuk, beste familia-

gurekin zerikusirik ez zuela uste dut. Lehentxoago aipatu dizut zuhaitz genealogikoa egin didatela. Amaren partetik 1.500 inguruko arbasoak aurkitu ditugu eta ez ziren atera Euskal Herritik, ez amarenak, ez aitarenak. Gipuzkoako, Arabako batzuk eta Bizkaiko arbasoak ditut.

—Atzera begira, zer utzi duzu egiteko?

“Atsekabe handia dut, Maidaganeko trenbidearen pasabidea lurperatzea lortu ez izana; trenbide hori lurperatu behar da”

ren batekin liskarrak izan zituela eta Otxandiora alde egin behar izan zuela. Egia al da?

—Beno, nik ez dut horrelakorik entzun. Egia da Oinaztarren eta Ganboatarren arteko liskarretan Olosoren bat zebilela, baina

—Badaukat atsekabe handi bat, Andra Marin, Maidaganeko trenbidearen pasabidea lurperatzea lortu ez izana. Nire ustez, lurperatu behar da trenbidea, auzoa banatu dutelako. Geltokia ere berreskuratu behar da, auzorako zerbitzu ona bailitzateke. o

aldizkaria **etxean** jaso nahi baduzu

HARPIDETZA > bete azpiko fitxa eta guri bidali

Izena.....Deiturak.....
 Kalea & zenb.....Herria.....
 e-mail.....Telefonoa.....

Urtero 20 euro 30 euro 50 euro beste kopuru bat euro
 Kontu zenbakia (20 digitu).

□□□□ □□□□ □□ □□□□□□□□□□

UK Uribe Kostako Aldizkaria 171 posta kutxa / 48991 Geba / uk@aldizkaria.biz / tel.: 94 491 13 37



Uriolak eskualdean

1983koetatik orain arteko uriolarik latzenak izan dira hauek. Ez ei dira ordukoak bezain latzak izan, baina busti-bustita eta urpean lotu dira Uribe Kostako leku asko. Irudi bilduma honetan Erandio, Getxo, Berango eta Plentzian gertatuko uriolen argazki batzuk dituzue, baina eskualdeko beste herri batzuetan ere izan dira uholdeak. Horrelakoetan klimak, eguraldiak, naturak... gogorarazten digu oraindik ere menderagaitza dela. Halere, esaerak dion legez, *“urak dakarrenak, urak daroa”*. Hala bedi!

Argazkiak: **Asier Mentxaka, Egoitz Sierra, Eduardo Camino, Salva Aristondo**









I

Iñaki Bítxitegia

OMEGA, LONGINES ETA TAGHEUER
AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza 3 T: 430 23 45
Tellexe 1 T: 460 27 41

Algorta

OSABIDE HORTZ KLINIKA
Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Periodontzia
- PADI

Bidebarri 27, behe eskuina
ALGORTA
94 430 76 96

Errotalde ileapaindegia

HARTU TXANDA TELEFONOZI!!

T: 460 38 90

Errotalde 18A / ANDRA MARI, GETXO

GAVRKO

GIZONENTZAKO
MODA

Tellexe 5
ALGORTA
T: 4607084

[zinema]

Ezkabara, berriro ere

El cementerio de la memoria bigarren dokumentala estreinatu du **Iñaki Alforjak**



San Kristobal gotorlekuko irudi bat

Ezkaba. *La gran fuga de las cárceles franquistas* dokumental txalotuaren ostean bigarren lana aurkeztu du Iñaki Alforjak (Iruñea, 1967). Lehenengo dokumental hartan Iruñeritik hurbil dagoen Ezkaba mendiko San Kristobal gotorlekuko presondegitik frankismo garaian izandako ihesaldia kontatzen zigun nafarrak. 1938ko maiatzaren 22an gertatu zen, presondegi frankistan 2.500 preso inguru ei zeuden eta 795 bat preso saiatu ziren ihes egiten, horietatik 585 inguru berriro atxilotu zituz-

ten, 210 bat hil zituzten eta hiruk baino ez zuten lortu muga igarotzea. Garaile frankistek isilarazitako gertaera gogora eta argitara ekarri zuen orduan Alforjak eta *El cementerio de la memoria* bigarren dokumental honetan ere memoria berreskuratzeko

«Memoria historikoa berreskuratzea du helburu nagusi bigarren lan honek ere»

helburua bete gura du. Eta berriro ere Ezkabara garamatza, San Kristobal gotorlekura, eta frankismoaren biktimak dakartzkigu akordura.

Presondegiko hilerrian 70 urtez lurperatuta egondakoen memoria eta izana berreskuratuko ditu; 131 presoengorpuzkiak berreskuratzeko desehorzketa prozesua (Aranzadi Zientzia elkartearen arduratu da horretaz) irudikatzen digu dokumentalak, baita eurakaz batera lurpean lo eragindako memoria historikoa, bortxaz desagerrarazitakoen sendien mina, isiltzera kondentuen samina, sufrimendua, testigantzak, historia... ere.

Bide Ertzean taldearen *Non diru* disko-kantu ezin egokiaren doinuek girotzen dute dokumentala, eta *Ezkaba* lana legez Eguzki Bideoak-en bitartez banatuko da. ○

Trailerra ikusteko:
www.youtube.com/watch?v=d9HI6ReTMJI

Beste jaialdi erraldoi bat

Kobetasonik heavy eta rock jaialdia **hilaren 20an eta 21ean** Kobetamendin (Bilbon)

Irudian, Slayer taldeko gitarra. Informazio gehiago: www.kobetasonik.com

Last Internacional Tour enpresak heavy eta rock musikari begirako jaialdi berria antolatuko du aurtan Kobetasonik izenpean. Enpresa berak prestatzen duen Bilbao BBK Live jaialdia legez, ordainpeko ekimena da eta Kobetamendin (Bilbo) egingo da. BBK Live baino hamabost egun arinago ospatuko da, hau da, hilaren 20an eta 21ean eta nazioarteko taldeakaz eta euskal talderen batez ere gozatzeko aukera egongo da. Bi egunetako bonoak 125 euro balio du eta egun baterako txartelak 68 euro.

Lehenengo egunean hurrengo taldeek eskainiko dute kontzertua: Judas Priest

(0:15), Slayer, Helloween, Ministry, Gamma Ray, Apocalyptica, Sonata Arctica, Cavalera Conspiracy, Gotthard, Airbourne, Su Ta Gar (15:10) eta Black Tide. Bigarren eguneko emanaldiak hurrengo taldeek eskainiko dituzte: Kiss (0:40), Dio, Europe, Blind Guardian, Saxon, MSG, Tesla, Arch Enemy, Brujeria, Obituary, Death Angel, Tigertailz eta Latzen (14:25).

Kobetamendin egin diren horrelako ekitaldietan legez, Kobetasonik jaialdirako ere akanpada gunea egongo da (hilaren 19an zabalduko dute), bertaratzeko doako autobusak, azoka... eta musika, ozen-ozen! ○

diskoa >

Maialen Errotabehere



Askatasun ibaiak (Agorri, 2008) bigarren diskoak plazaratu du orain dela ez asko Maialen Errotabeherek (Arrosa; Nafarroa Beherea, 1983).

Lehenengo lana, *Nere Mundua*, 2004an argitaratu zuen. Dozena bat kantuko bigarren disko honetan blues, jazz eta pop doinuak euskal musika tradizionalagaz nahasten ditu eta kantuen letrak berak eta Jean-Louis Errotabehere aitak idatziak dira. Abesti guztiak txirikordatzen dituen gai nagusia da norbanakoaren askatasunaren aldarrikapena, beharra eta eskubidea. Philippe Alborrek eta David Usabiagak sortu dute musika eta hainbat kantutan kolaboratzaile bereziak izan ditu Errotabeherek, barbarako: Nico Wayne Toussainten armonika, Julie Lamberten ahotsa eta Haurrok taldea.

Informazio gehiago:
www.myspace.com/maialenfolk

diskoa >

beste gorakada bat

Gor diskoetxe nafarrak *Aurtengo Gorakada* bildumako hamargarren lana argitaratu du. Hamar urte dira dagoeneko uda partean, bilduma honen izenean, diskoetxe taldeakaz diskoak osatzen dutela. Ostera, haizeak helarazitako azken berrien arabera lan honek itxiko luke zikloa, hau izan liteke bildumako azken diskoa. *Aurtengo* lana osatzen dutenen artean daude: Kerobia, Ezinean, Bihotz Bakartien Kluba, Lehendakaris Muertos...

Informazio gehiago: www.gordiscos.com

diskoak

Goza-goza suabessito
Korridoak eta saltsa...
Elkar



Elkar disketearen katalogo zabalean aukeratutako kantu alai eta dantzagarriek osatzen dute bilduma hau. Diskoaren egileen hitzetan "genero honek dituen ezberdintasun zein ezaugarri popularrengatik, oso onarpen handikoa izan daiteke eta datozen festa garaietarako oso aproposa".

Zuretzat
Ezinean
Gor



Hardcore melodikoa uztartzen Ezinean taldeak. 2005. urtean kaleratu zuten maketak izan zuen arrakastak bultzatuta, lehenengo diskoak kaleratu zuten 2006an. Diskoak harrera ona edukitu zuen eta Leioako Pop-Rock lehiaketa irabazi zuten. Betiko freskotasuna eta ideiei eutsiz bueltan da Ezinean taldea.

Once
Porretas
Realidad musical



Hamaika kantuz osatutako diskoak kaleratu berri du Porretas talde ospetsuak. *Once* izena du eta itxura ona dauka: antzineko erritmo eta joeretara bueltatu dira, 80. hamarkadeko punk-rockera, alegia. Diskoak Madrileko Sonoland estudioetan ekoitzi zuten urte hasiera eta maiatza bitartean.

María Jesús

ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA

Alangobarri 10 / T: 4910821
ALGORTA

HARTU TXANDA

Getxoko Andra Mari
Gasolindegia

Etxera
eroaten dizugu
gasoleoa

Txartel hau aurkezten
baduzu 3 euroko
deskontua edukiko duzu
zure eskarian

Getxo eta Berango artean
Tel: 94 430 15 00

etorri
eta
ikusii!

ORIXA

liburudenda

Alangoeta 8 (Euskal Herria kalearekin bat)
Tfn.: 94 491 23 79
Algorta

BASALBO BASERRIA

JATETXEA

TEL./FAX: 94 491 34 91

MARTITURRI ESTARTA 18
48993 ANDRA MARI - GETXO

basalbobaserria@yahoo.com

[liburuak]

Gaur egun ere *Gvero*

Axularren maisulanaren irakurketa eten bakoa egingo dute **Bilbon hilaren 19an**

Elkarlan osatzen duten euskaltegiek (Bilbo Zaharra, Gabriel Aresti eta J. M. Zabala) euskara ikasleen jaia ospatuko dute hilaren 19an. Jaia egitarauak bi ekitaldi nagusi iragartzen ditu: bata, ikasleei errekonozimendu publikoa egiteko Bilboko Kafe Antzokian egingo den jaia eta bestea Arriaga antzokian egun osoan zehar (08:00-20:00) egingo den irakurraldi eten bakoa. Azken horretarako euskal letretako maisulanten leku berezia daukan liburua eta idazlea aukeratu dute, hain zuzen, Axularren (Pedro Agerre Azpilkueta, Urdazubi, 1556-Sara, 1644) *Gvero* (1643). 400 bat lagunek euskal literaturaren historian prosazko lehen liburu originalaren eta denbora luzez euskal

«**El Pais egunkariak eta BBK-k *Gvero* bilduma sortu dute; lehen zenbakia kalean da**»

ra jasoaren eredu izandakoaren irakurketa egingo dute, gelditu barik 12 orduz jarraian. Ziurrenik, euskaldun gehienok (gaur egun "denek" esatera ezin ausartu) gutxi gorabehera ezagutzen dugu (entzutez baino ez bada ere) nor izan zen Axular eta zer ekarri zuen *Gverok*, baina ia-ia ziurta dezakegu euskaldun gutxi, oso gutxi hurbildu garea orrialde horietara; litekeena da edukiak ez erakartzea, baina formak, idazkerak, darabi-



1643an argitaratu zen liburua

len euskarak liluratu egingo gaitu. Horregatik, aukera itzela da ekainaren 19koa bai Axular baita *Gvero* ere hurbiletik ezagutzeko.

Bestalde, ez da ekimen hori egunotan Axularri egin zaion gorazarre bakarria. *El Pais* egunkari espainiarrak eta BBK fundazioak elkarlan garatu duten egitasmo batek ere euskal prosa maila gorenera eroan zuen apaizari eta idazleari omenaldia egin gura izan dio, zeharka bada ere. Aipaturiko egunkariak eta fundazioak "Gvero" izeneko bilduma elebiduna sortu dute. Egunkariko *Gaiak* sailean argitaratuko euskal idazleen narrazioakaz (euskaraz eta gazteleraz) 60 orrialdeko liburuxkek osatuko dute bilduma eta Unai Elorriaga, Harkaitz Cano, Felipe Juaristi, Anjel Lertxundi eta Iban Zalduren ipuinak bildu ditu lehenengo zenbakiak. ○

liburuak



Iurac bat
Jokin de Pedro
Elkar

Emazteaz libratu nahirik, hilketa perfektua antolatuko du Garik: profesional baten esku utzi du egin beharrekoa, bera ez du ezerk lotzen gertaerekin, eta arrasto guztiek ezer ez dakien koitadu bat seinalatzen dute. Alabaina, gauzak ez dira nahi bezala irten, eta hortik aurrera korapiloa are gehiago bihurtuko da.



Tom hil da
Marie Darrieussecq
Alberdania

Kontakizun xume bat da, esaldi bat bestearen atzetik jarrita koa-derno batean, Tomen heriotza kontatzeko. Lau urte eta erdiko haurra da Tom. Sydney hil da, Australian. Ama da hain zuzen ere kontalaria. Tomen heriotzatik hamar urte pasatu dira, oroitza-penei aurre egitera ausartu denean.

[kirola]

Arraun eta bela kiroldegiak

Erabiltzeko prest daude dagoeneko
Getxoko Kirol Portuko bela eta arraun pabiloiak



Maiatzaren 21ean zabaldu zituzten pabiloi hauek

Pasa den hil amaieran, zelanbaiteko atzerapenagaz, zabaldu zituzten ateak Getxoko Kirol Portuan belari eta arraunari begirako kiroldegiak. Bi kirol horiei zuzendutako pabiloi bana eraiki dute, guztira ia 7.950 metro koadroko azalera orubean.

Urte andana joan dira arlo horietako kirolarietako egitasmoaren berri izan zutenetik. Orubearen jabetza eta eraikitzeak arduraren nork zuen gaineko eztabaidek luze jo zuten, eta egitasmoa gauzatuko zelako itxaropena ere erdigalduta zuten askok. Ostera, pazientziak beteriko urteak joan ahala egitasmoa zelan gartzan joan den ikusi dugu eta, 10 urte baino gehiago pasa diren honetan, arraunketa eta bela pabiloiak altxatuta eta erabiltzeko prest daude.

Bi kiroldegi horiek eraikitzeak 1.468.941 euroko kostua izan du, eta horrez gainera, Getxoko Udalak kirol horietarako materiala erosteko hurrengo zenbaterakoak bideratu ditu: arraunketarako materialarentzat 150.000 euro, eta belarako materialarentzat beste 300.000 euro.

Belako pabiloiari dagokionez, gutxi gorabehera 1.000 metro koadroko azalera dauka, ontzientzako gune zabal bat, ontzi lagungarri edo osagarrientzako hangarra, aldagelak eta irakaskuntza teorikorako hiru gela. Kanpo aldean ontziak uretara botatzeko arrapala ere egin dute. Pabiloiaren 945 metro koadroen erdia-edo estalpekoak dira. Bela kiroldegi horretan kirol horri lotutako jarduerak antolatuko dira,

«Bi kiroldegiak eraikitzeak 1.468.941 euroko kostua izan du Udalarentzat»

berbarako: uztailean Getxo eta Sopelan egingo diren Atlantikoko Jokoen zenbait ekitaldi. Gainera, urte amaieran zabalduko ei dute bertan bela-eskola.

Bestalde, Getxo Arraun taldeak erabiliko duen 1.000 metro koadro inguruko arraun pabiloiak, besteak beste, hurrengo guneak dauzka: traineruak eta ontziak gordetzeko biltegi handia, aldagelak, 200 bat metro koadroko gimnasioa, 135 metro koadroko ur putzua edota pantalana etab. ○

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

Kantxa
Kirol moda



350 M²
KIROLERAKO GUZTIA!!

**URIBE KOSTAKO
KIROL DENDA**

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82

ETXeko ELEKTROTRESNEN KONPONKETA

Lacofris.S.L. SERVITEC

• MARKA GUZTIAK
• 24 ORDUTAN ERANTZUNA
• 3 HILABETEKO GARANTIA
• 25 URTEZ ZURE ZERBITZUAN
• IRTEERA DOAN

94 430 52 00 Kasune, 18 · ALGORTA

Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen

94 491 13 37

Mikel Pikaza > zirko antzezlea

“Barakaldoko Gaztetxean hasi ginen malabareekin eta hankapaluekin ibiltzen”



Mikel Pikaza bere ikuskizuneko une batean

Sortzez barakaldarra, Algortan bizi izan da hainbat urtez Mikel Pikaza gaztea. Zirko trebeziak ikasi ditu, Euskal Herrian lehenik eta Hego Ameriketara gero. Argentinan eman du urte eta erdi trebetasun horiek lantzen eta hango erara moldatzen. Maiatzean itzuli da gurera. Etorri berri, Leioako Umore Azokan aurkeztu du Argentinatik ekarritako ikuskizuna, “Ukelele jauna”. Elkarrizketa egiteko unean, Bilboko Errekalde auzoko plazan topatu dugu, ikuskizunaren saio berria hasteko prest; uda guztian gelditzeko asmorik ez du.

—Leioako Umore Azokan estreinatu duzu zure lana, “Ukelele jaunaren ikuskizuna”. Zelan joan zaizu?

—Ondo, oso pozik nengoen parte hartzeko aukera eman zidatelako, talde gazte baten-tzat ez baita erraza Umore Azokan sartzea. Baina euskarazko emankizuna eskaini nien, gustatu zitzaion eta aukera eman zidaten bi saio egiteko. Bigarren hori gaztelaniaz egin nuen eta hobeto irten zen, helduek ere ulertzen zutelako. Baina haurrak pozik ibili ziren euskarazkoan ere. Oso pozik nago.

—Zertan datza?

—Kale ikuskizuna da, argentinarrak, han sortu bainuen, hango beteteranoen laguntzaz. Zirko trebezia batzuk aurkezten ditut, horien bitartez ikusleekin giroa eta harremana sortzen dut eta umorez josten dut.

—Zertan ibili zara Argentinan?

—Batez ere zirkoa egitera joan nintzen Iruñeko zirko eskolako lagunak. Hango zirko eta akrobazia eskoletan ibili gara eta, bide batez, denetarik egiteko aukera izan dugu: bidaiatu, herriak ezagutu, arazo batzuk ezagutu... Urte

eta erdi egon naiz, oso gustura gainera. Beste mundu bat da hura, bizitzeko beste modu bat dute, pentsatzeko bestelako era bat... Oso aberasgarria izan da.

—Nondik datorkizu zirkorako zaletasun hori?

—Barakaldoko Gaztetxean hasi ginen malabareekin eta hankapaluekin ibiltzen ikasten. Ikastola batean zirko lan-txoko bat emateko aukera eman zidaten orduan. Ikasturte bate-

«‘Ukelele jauna’ kale ikuskizuna da, argentinarrak, han sortu bainuen»

an zehar, egunero ematen nuen tailerra. Han piztu zitzaidan gogoia eta Iruñeko zirko eskolara joatea erabaki nuen. Bi urte egin nituen jo eta ke, egunero klaseak jasotzen. Horrela hasi nintzen.

—“Ukelele jauna” estreinatu berri eta dagoeneko hasi zara beste herri batzuetan aurkezten, ezta?

—Bai, hala da. Egia esan, oraingo estreinaldia Euskal Herrikoa eta euskaraz izan da, iazko udan Uruguain hainbat emanaldi egin bainituen. Euskal Herrira maiatzean iritsi naiz eta euskara elkarteak zein auzoko jaietako antolatzailak deitzen dabilta bertan egiteko ikuskizuna; lana lortzen nabil, bai.

—Beraz, uda oso beteta duzu?

—Uztaila batik bat. Oraingo, abuztua nahiko libre daukat eta uztailean badaukat tarteren bat. Beraz, gura duenak dei dezala. Egia esan, pila bat emanaldi ateratzen dabilta.

—Eta, “Ukelele jauna” lanaz gainera, beste zerbait prestatzen zabilta?

—Bai, beste ikuskizun bat prestatzen nabil Iruñeko eskolako lankide batekin, baina bera oraindik ez da itzuli Hego Ameriketatik. “Ukelele jauna” obrarekin alderatuta, oso ezberdina da lan berria, baina obra biek lan egitea da gure asmoa. ○

“Getxo, akordaten naz”

Herriko euskaldun zaharren testigantzak, oroitzapenak eta euskara jasotzen dituen dokumentalaren...

...kopia bat eskuratu...

...nahi baduzu
“uk@aldizkaria.biz”
helbidera mail bat
idatzi.

10 ale dauzkagu
UK-ko harpidedunen
artean banatzeko

138. zenbakiko irabazleak

Jabi Gonzalez
Iker Goñi
Araitx Hidalgo
Rikardo Minguez
Estiuxu Alvarez
Begoña Lezamiz
Benito Lopera
Eneko Gisasola



akabuko
aleak!!!



Amezti 6, 4. solairua, 5. bulegoa 48911 Algorta GETXO
e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kutxa 171 / Tel: 94 491 13 37

**EROS NAZAZU
EUSKARAZ.**

BAI

MERKATARITZAKO LANGILE HAUEK ZUREKIN EUSKARAZ BERBA EGIN NAHI DUTE. IKASTARDA EGIN DUTE HORRETARAKO, ZERBITZUA EUSKARAZ EMATEKO. EUREN AHALEGINA ESKERTZEKO MODURIK ONENA EUSKARAZ EGITEA DA.

GALDARETXE GOZOLABEA (OBRADOR)
PERSIANAS, TOLDOS Y MOTORES LBF
ARANTZA LORADENDA/ FLORES ARANTZA
BATZOKI TABERNA
GROUPAMA ASEGURUAK
ABERIAK AKUARIODENDA

Getxo
 UDALA • AYUNTAMIENTO ▶ Euskara Zerbitzua

EUSKARA BIZI

Olagorta Ostalaritza

Egun berezietarako leku ederra Berangon



Gaizka Isla Calzada sukaldaria, Olagortan

1955. urtean erosi zuen Etxebarri jaunak Berangoko Eguzkiza bideko lur saila. Lourdes eta Rafa Etxebarri seme-alabek zati bat hartu eta Olagorta Ostalaritza sortzea erabaki zuten orain dela sei urte. Rafak eskarmentu handia zeukan ostalaritzaren munduan eta, horregatik, ez dute arazo handirik izan dena martxan jartzeko. 300 pertsona har ditzakeen ospakizun handietarako (ezkontzak, enpresa bilerak...) gunea da Olagorta. Etxea eta ingurua ikaragarriak dira, txokoaren historia errespetatuz berre-raiki dute eta.

Enkarguz lan egiten dute soilik Etxebarri neba-arrebek. Egunean ekitaldi bat antolatzen dute eta 120 pertsona hurbildu behar dira gutxienez: "Azken boladan oso modan jarri da ezkontzen kontua masifi-

katzea. *Guk nahiago dugu gauzak ondo egin eta zerbitzu pertsonalizatuagoa eman*". Horretarako, detaile guztiak ondo zaindu eta eguna baino lehen dena adosten dute bezeroekin. Menuari dagokionez, bazkal aurreko koktelean egiten dute indar gehien: "Bezeroak nahiko klasikoak izaten dira menu nagusiari dagokionez; betiko platerak baina kalitate handikoak, guztiak gustura geldidatezen. Lorategian egiten dugun koktelean, aldiz, ideia berritzaileak probatzen ditugu". Olagortatik pasa direnak oso gustura gelditu ohi dira: "Ez dugu propagandarik egiten, baina ahoz ahokoak ondo funtzionatu digu orain arte". Egun berezietarako leku berezia. ○

Eguzkiza Bidea 111, BERANGO
Tel.: 94 668 04 07

KONTXI
ZUAZUBISKAR

URDAITEGIXA

*Adituak gara, Urdaiazpiko Iberiko,
 Pate eta Gaztaietan!!*

Alangobarri, 10 ALGORTA
T.: 94 491 02 93

GOZOLABEA

galdaretxe

• Maidagan, 35 GETXO Tel. 94 491 11 25
 • Mayor, 17 AREETA Tel. 94 464 77 29
 • Sabino Arana, 67 LEIOA Tel. 94 464 40 58
 • Telletxe, 11 ALGORTA Tel. 94 460 32 14
 • Sabino Arana, 9 SOPELA Tel. 94 676 11 01



ARTAZA ETXEA

jatetxea

- gozariak
- txuletoia • makailua
- arrain freskuak

asteburuetan bazkari eta afariak enkarguz

Erreserbak: 94 463 03 92

Artaza Etxea Eraikina. Gobela eraikinaren aurrean • LEIOA

JUAN-MARI



Harategia eta txarkuteria



LAS MERCEDES 31 • TEL.: 94 464 41 25

AREETA



**Asador
 Goieztzi**



- Zabalik egunero
- Eguneroko menuak
- Enpresa menuak
- Menuak normberaren gustura
 - Egunero karta berezia
 - Gazez dastatzeko menua astelehenetik- ostegunera
 - Jaun hartze bazkariak zure gustura prestatzen ditugu.

Aretxondo 14
Algortako Portu Zaharra / Getxo
Erreserbak: 94 491 25 93



prentsa • aldizkariak
GETXOKO KIROL PORTUA
Arriluze z/g • Tel.& Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO

BATIZ KRISTALDEGIA



- BIDRIERAK
- GRABATUAK AREA TEKNIKAREKIN
- IZPILU ERRALDOIAK
- INSTALAZIO OROKORRAK
- FUSIN

Illeta z/g (Sarrikobasoerikin bat)
T:94 430 69 42 /ALGORTA

GOIZEAN



"Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez prentsa"
Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Lixarrieriak

Orduña Mendatea 1 Telletxe 13
T: 430 22 13 T: 460 02 88
GETXO ALGORTA

Turikaldai

JOKIN GARATE BAYO KIMETZ GARATE AZURMENDI
Neguriko Etorbidea 9 Aingeruaren etorb. 4B
T: 491 14 87 (sarrera, Jata Mendia) T: 460 01 87
48990 NEGURI 48990 GETXO

TXIKI-AUNDI KAFETEGIA
ezagutzen al duzu?

herriko pintxorik onenak ditugu etorri eta probatu!!

Amezi, 10 | T: 94 460 57 57 - ALGORTA

CAFE
usategi
ALGORTA

Usategi parkea z/g - Tel. 94 460 64 13

[horoskopoa]


<p>URA</p>  <p>(Abenduak 21 urtarrilak 19) Zure bizitzari zentzia hartzen diozu lehenbiziko aldiz. Laino grisiek ostareei utzi diete lekua. Eskerrak, baten garaia! Egunerokotasuna ez da pentsatzen zenuen bezain gaxa eta indartsu sentitzen zara. Zorionekoa zu...</p>	<p>OTSOA</p>  <p>(Urtarrilak 20 otsailak 18) Jairik jai, edo hobeto esanda, gaurik gau ibili izan zara azkeneko hiru hilabeteetan. Zure gorputza esfortzuaren ajeak nabaritzen hasi da dagoeneko. Horrela jarraituz gero oste kronikoa jasan beharko duzu. Atsedena hartu!</p>	<p>ADARRA</p>  <p>(Otsailak 19 martxoak 20) Inor baino azkarragoa izan zara oporrak hartzerakoan. Jendez gainetza zeuden tokietatik eta gunet turistikotik "kuttreatatik" ihes egin eta atsedenaldira orain egitea erabaki duzu. Eguraldira epela da oraindik. Ondo ibili!</p>
<p>AITZURRA</p>  <p>(Martxoak 21 apirilak 19) Beti berandu! Beti berandu! Eskatu erloju bat zure urtebetetze egunerako, behingoz! Ez da horren faltagatik izango... Zenbat bider errepikatu dizute denboran heltea oso garrantzitsua dela! Ematen du ez duzula inoiz ikasiko....</p>	<p>HOSTOA</p>  <p>(Apirilak 20 maiatzak 19) Zer da zuretzat arrakasta? Batzuentzat zoriontsu bizitzea, besteentzat erronka gogorreki aurre egitea. Hainbeste aukera egonda, zergatik ez duzu zuk zeurea bilatzen? Oso erraza da, egiten duzunagaz pozik egotea da gakoa.</p>	<p>EGUZKIA</p>  <p>(Maiatzak 20 ekainak 18) Zorionak lan berriagatik! Burututako lan gogorrak emaitzak ematen dituela ikusteak pizgarria da zuretzat, ezta? Berehala ospatu beharko duzu! Lagunakaz, familiagaz, bikoteagaz... <i>Bardin da, danokaz!</i></p>
<p>GARIA</p>  <p>(Ekainak 19 uztailak 18) "Lan lasterra, lan alferra". Ulertzen duzu zer esan gura duen horrek? Kontuan hartzeko gomendioa da, txo! Pazientziak hartu, okerreko bidetik joan gura ez baduzu behintzat. Gauzak ondo egin behar dira beti.</p>	<p>LASTOA</p>  <p>(Uztailak 19 abuztuak 17) Uda aurretik makina bat egitasmo zenituen egiteko, baina uda dator laster eta ez duzula pentsatutako ezer egin konturatzeko zara. Egunean egunekoa aprobetxatu beharra dago eta etorkizunari ez hainbeste begiratu.</p>	<p>IRATZEA</p>  <p>(Abuztuak 18 irailak 16) Isila, lotsatia eta bakartia zara. Zure kontura bizi gura duzu, inoren bizitzan sartzeko gogorik ez duzulako. Pozik zaude horrela? Ba tira, aurrera jarraitu, baina arazoren bat izanez gero, ez laguntzarik eskatu.</p>
<p>META</p>  <p>(Irailak 17 urriak 16) Bikote bila zabilzala? Ez dakit ba garirik aproposena ete den... Ez al zaude ondo bakarrik? Ez zaude ohituta norbaitegaz ibiltzen eta arazoak egon daitezke. Lasai jarraitu, ez duzu inolako buruko minik behar eta!</p>	<p>HAZIA</p>  <p>(Urriak 17 azaroak 15) Garai txarrak dira hauek zuretzat. Buruari buelta gehiegi ematen dizkiozu eta zure jarrerara bizitzaren aurrean ez da batere baikorra. Jendeak maite zaitu, lagun onak dituzu. Etorkizunean hobeto joango zaizula ziur nago.</p>	<p>NEGUA</p>  <p>(Azaroak 16 abenduak 20) Oporretan joateko txoko magikoak eta zoragarriak daude Euskal Herrian. Anima zaitetz eta ezagutu zeure etxea. Ziur nago Benidormeko baino ahaztezinagoak direla hemengo paraje koloretsuak. Ezagut itzazu!</p>

mungia
OKINdegia

Algortan badaukagu artisauen ogia izen eta jatorriz da "ogi mungia".

Goizero lortzen dogu obispoen guleria probatu bada edo ez dan benetako egia.

KASUNE 28 - T: 94 430 10 76
ALGORTA

denborapasa

LUMA aldizkariaren eskutik

HITZ GURUTZATUAK

1										
2										
3										
4										
5										
6										
7										
8										
9										
10										

Ezker eskuin

1. Maileguan utzia. 2. Gipuzkoako herria. Kontsonantea. 3. Lepoko. Musika nota. 4. Etorri aditzaren erroa. Betileen edergailu. 5. Gai-sorta. Joan zaitetz. 6. Suzko gas masa argitsuak. Alfabetatzerako erakundea. 7. Aluminioaren ikurra. Orioko. 8. Katalanez, deus ez. Santu. Bostehun. 9. Kantari katalana, Xativan sortua. Ore jangarri. 10. Iparretarrak. Dago. Eguzkia.

Goitik behera

1. Ahalmen miragariak dituen alegiazko emakume. 2. Ardo edaleak. 3. lurako. Musika nota. 4. Behar, egiteko. Guzti. Milla eta bostehun. 5. Eseri aditzaren oina. Alkohol edaria. 6. Hari, gaitezen. 7. Gai bakun baten zatiki. Zintzo. Bokala. 8. Infusio mota. Laztanak. 9. Uranioaren ikurra. Zingira eta paduretako belar-landare. 10. Zati. Ahariaren emea.

Soluzioak

V	I	K	E	V	D	K	I			
I	H	V	N	O	M	I	R			
D	E	N	O	D	S	R	E			
H	V	T	O	R	I	O	A			
K	A	K	R	A	K	G	A			
Z	V	Z	O	Z	O	V	Z			
L	M	E	L	R	I	O	T			
L	A	O	K	E	N	E	I			
T	E	A	S	A	T	E	A			
A	T	U	A	G	A	T	U			

asmatu eta irabazi > **bi lagunentzako bazkari bat**



Nor da?

- Gernikarra
- Mikroarekin ondo konpontzen da
- Ken Zazpi taldearen berririk al duzu?

> Aurrekoaren erantzuna: Javier Bardem
> Irabazlea: **Herena M. Llona**

*deitu telefonoz goizez: 94 491 13 37

Bidali erantzuna eta zure izen-deiturak, asmatzen duzuenon artean bi lagunentzako degustazio berezia zozketatuko dugu:
UK Uribe Kostako Aldizkaria. 171 posta kutxa 48990 Getxo
uk@aldizkaria.biz

Usategi
kafetegia



Usategi parkea z/g, **Algorta**
Telf: erreserbak: 94 460 64 13



MARIBE URRESTIK UTZITAKO ARGAZKIA

Bittor Egurrola

Oberentsu txokoa, 1980

Algortarrez osatutako txoko honek, 1972an sortua, Euskal Herria kalean zuen egoitza. Txoko arrunta izateaz gain, Oberentsukoek lan txalogarria egin zuten lau zapabost urtetan (1978-82), Uribe Kostako adimen urriko haurren elkarteari diruz laguntzeko. Txikia baina bihotz handikoa den *Petisok*, txokoaren eta ekimen horren sortzaileak, bere txokoa ez ezik Uribe Kostako beste txoko batzuk ere sartu zituen proiektu honetan. Gaurko Tangora kafetegian zegoen lonjan, barran eta sukaldean lan eginez, urteroko aurrekontuaren %10 edo lortzen zuten. Sasoi hartan ez zegoen diru laguntzarik administrazioaren aldetik.

Txokoa desagertu zen, baina euren arteko adiskidetasunak hor dirau eta oraindik ere San Lorentzoko kalejirari eusten diote. Argazkia, hain zuzen, egun horretakoa da; Morrongo tabernan atsedenaldi bat egin eta bitaminak hartu, gero argazkia atera postetxearen aurrean eta musikarekin aurrera! ○

Zutunik: Boni Fernandez (txistularia), Etxebarria, Jose Antonio Bilbao "Txirri", Jose M^a Dañobeitia, Pedro Atxurra (txistularia) (GB), Salva Saitua, Iñaki Elorriaga "Zezena", Pablo Atxurra (atabaljolea) (GB), Victor Igual "Txakari" (GB), Iñaki Goiburu.

Jesarrita: Jose Lejarraga "Petiso", Jose Huergo "Kotele", Eli (Morrongo tabernakoa), Tomas Collazos (GB), Javier Saitua, Txiki Butron (GB).



gure posta elektronikoa

uk@aldizkaria.biz

UK Uribe Kostako Aldizkaria

[aitormenak]

ALAIN GOIKOETXEA > skaterra

“Gaua lo egiteko da; eguna, berriz, gainontzeko guztia egiteko”

Testua: **Zuberoa Iturburu** / Argazkia: **Asier Mentxaka**



Defini ezazu zeure burua berba bitan.

Hori beste norbaitek egin beharko du.

Zein filmetan egingo zenuke protagonistaren papera?

Ez dakit, ez zait otutzen pelikula konkreturik, baina, seguru asko, abenturazko filmeren batean izango litzateke.

Historiako zein pertsonaia miresten duzu gehien?

Ez dakit, ez dakit. Bat esatearren, Jesukristo esango dut. Gizon ona omen zen.

Orain zarena izango ez bazina, zertan gustatuko litzazuke jardutea?

Duda barik, snowbordean arituko nintzateke.

Ohitura txarren bat?

Bai, erretzea, besterik ez.

Zer ez zenuke sekula barkatuko?

Traizioa.

Berriz egingo zenukeen bidaiarik ba al dago?

Bai, bai... egin ditudan ia denak, baina batez ere, Australiara edo Patagoniara bueltatuko nintzateke. Oso une onak bizi izan ditut toki horietan eta oso gustuko ditut biak.

Irakurri duzun azken liburua?

Irakurri dudan azkena *El niño del pijama de rayas* izan da. Ez dut oroitzen idazlearen izena, baina oso polita da. Alemaniako holokaustoaz, juduez... hitz egiten du.

Ikusi duzun azken filma?

Uste dut Al Pacino agertzen zen bat zela, baina ez dut izenburua oroitzen. Itxoin, ez, *Casino Royale* ere ikusi dut, James Bondena. Ondo dago, polita da.

Zein da zure ametsetako bat?

Ondo bizitzea eta osasuna edukitzea.

Eguna ala gaua?

Eguna, gaua lo egiteko baita. Eguna, berriz, gainerako guztia egiteko. ○

LABURREAN— Alain Goikoetxearekin egin dugu berba zenbaki honetako Aitormenak atalean. Bilbon jaio zen orain 31 urte, baina algortarra da. *Skate* munduan sartuta dabilzanek ondo baino hobeto ezagutuko dute Goikoetxea, *skater* profesionala baita. Turismoa ikasi zuen unibertsitatean, baina sekula ez da aritu horrekin zerikusirik duen lanetan. Beti ibili da patinatzen eta snowboard edo surfa praktikatzan. Oraintsu *skateari* buruzko bideo bi prestatzen dabil.

GET XO PHO TO

IRAILAK 11 / URRIAK 12
2008

MUTAZIOAK

LANEN AUKERAKETA ALEJANDRO CASTELLOTE & BEGIHANDI